



ARGIA

Ipar EH: Le Penen ultraeskuina
garaile lehen aldiz

Hego EH: PSOE irabazle,
Espainiako Estatuan ez bezala

EH Bildu goranzko joeran
eta EAJ gainbeheran

Eskuin muturrak hedatzen jarraitzen du European

NOLA EGINGO DIOGU AURRE?

4-11. orrialdeak

#2.875 | 2024 / 06 / 16 | 4,00 €

**Erraustegiaren
arrasto zikinak
agerian**

24 | I'ZUBIETA 2019-2023'
TXOSTENA



**Doribelen kasua eta
arrazakeria**

30 | INDARKERIA MATXISTA



**Harrika
kolektiboaren besta
kuir eta feministak**

46 | ITEKNO MUSIKA

Gure datuak edozeinen esku uztera ohitu gara

Zure erakundeak hodeian pribatutasun arazorik gabe lan egitea nahi baduzu, **Nextcloud** da zure bulego birtuala. [Google eta Microsoften alternatiba etikoa.](#)



DATUEN GAINEKO KONTROLA



EUSKARAZKO TRESNA



APLIKAZIO PERTSONALIZATUA



FITXATEGI PARTEKATUAK



DOKUMENTUEN EDIZIO KOLABORATIBOA



MUGARIK GABEKO BIDEO-DEIAK



KONTAKTU SINKRONIZATUAK



EGUTEGIA, POSTA, ETA BESTE HAINBAT APLIKAZIO



INZA

(Iametzaren Nextcloud Zerbitzu Aurreratuak)



ERRENDIMENDU HANDIKO BIDEO DEIAK



ITZULPEN AUTOMATIKORAKO PLUGINA

Nextcloud zure erakundearen jarri nahi baduzu gurekin harremanetan jar zaitezke, finantziazio bideak aztertzen ere lagunduko dizugu.



www.nextcloud.eus



iametza

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: GONZALO FUENTES / REUTERS

Iritziak

- 19 | DAVID BOU
- 20 | NORA SALBOTX
- 21 | ANE LABAKA
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | IÑAKI MURUA

Finkoak

- 37 | ARGIA KOMUNITATEA
- 38 | BIZI BARATZEA
- 36 | GORPUTZ HOTSAK: ESPE
CIRIZA
- 49 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA

24 | ERRAUSTEGIAK LEHEN POZOIAK ERAKUTSI BADITU... ZER EGIN?

Pello Zubiri kazetariak erreportaje honetan azaldu du ToxicoWatch fundazioak egindako ikerketaren emaitzek erakutsi dutela Zubietako erraustegiaren inguruan hainbat substantzia toxikoren igoera nabarmena izan dela. Erraustegien hutsik nabarmenenak zeintzuk diren azaldu du, eta arduradun politikoei informazioa eta gardentasuna bermatzera dei egin die, isurketa toxikoen datuak herritarren eta zientzialarien esku egon daitezen.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Etxebizitza: ultraeskuinari atea ireki dio Europak

Urko Apaolaza

14 | PERTSONAIA | JOSU GARRITZ

“Diasporan egunean bizi dira, arbasoen historiaz pixka bat ahaztuta”

Miel A. Elustondo

30 | “JUSTIZIA DORIBELENTZAT”

Indarkeria matxista intersektionalaren kasu paradigmaticoa

June Fernandez

34 | GIZARTEA | LEKEITIOKO SOS MUGIMENDUA

“Zerbitzu duinak behar ditugu herrian”

Alejandra Goikoetxea

42 | KULTURA | JESUS CARRERA

Frankistek fusilaturiko buruzagi komunista

Urko Apaolaza

44 | KULTURA | ARTEA

Dada Baroisa jaio zela 150 urte

Julen Azpitarte

46 | KULTURA | HARRIKA KOLEKTIBOA

Askatasunerako dantzalekua

Olaia L. Garaialde


Ekonomia
eta lurralde
eraldatzailerik
erizoma

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin,
Jon Torner, Julen Ugartemendia,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Manex Usarralde,
Mikel Garcia, Onintza Irureta,
Olaia L. Garaialde, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soruluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaitza taldeko kidea da ARGIA
honako enpresekin batera:


Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da
testuontzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.

Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA





Garai ilunak

Europako Parlamentuak eskumarago eta muturrerago jo du. Faxismo berritua ia herrialde guztietan lehen mailako eragile politiko bilakatu da. Europarlamentarietan bostetik bat eskuin muturrekoa izango da. Baina edonola ere, agintean, Ursula Von Der Leyenen lagunak izango dira berriro ere. Gerra —genozidio baten babesar barne— “segurtasuna”, “kanpoko mehatxua” eta migrazioaren kontrola dituzte ahotan une oro, neofaxistek historikoki haizutatuko gaiak, hain zuzen. Biek ala biek urteak daramatzate beldurrezko kontakizun bat sortzen, herritarrok onar dezagun seguru sentitzeko bide bakarra dela armen eta gerraren industrian diru kopuru handiak gastatzea, eskubide eta askatasun batzuk galtzearen truke. Eta apurka-apurka lortzen ari dira. Irribarre prefabrikatuen eta fokuetako distiraren atzean, iluna dator.

Eskuin muturra irabazle Ipar Euskal Herrian eta PSOE Hego Euskal Herrian, EH Bildu gora eta EAJ amilduta

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herri gehienetan nagusitu da eskuin muturra, nagusitasuna ia erabatekoa da Lapurdin. Hego Euskal Herrian, herrialdeka PSOE nagusi izan da Nafarroan, Araban eta Bizkaian, eta EH Bildu Gipuzkoan. Parte hartzeak gutxigatik gainditu du %50a. Eskuina eta eskuin muturra indartuta atera dira.

Lapurdin, Nafarroa Beherean zein Zuberoan nagusitu da eskuin muturra. Batasun Nazionala nagusitu den herrien artean daude, esaterako, Baiona, Hendaia, Urepele, Sohüta, Donapaleu...

Lapurdin, ia erabatekoa izan da nagusitasuna. Hiru herritan soilik ez du irabazi Le Penen alderdiak: Miarritzen eta Basusarrin Emmanuel Macronen Renaissance izan da irabazlea, eta Makean PS-Plaza Publikoa alderdi sozialista. Hiru horietan Batasun Nazionala garaipenetik oso hurbil geratu da, halere.

Orotara hartuta, Batasun Nazionalak 29.515 boto lortu ditu; PS-Plaza Publikoak 22.182; eta Renaissancek 21.498. Horiek dira hiru bozkatuenak alde han-

EAE mailan EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak. Alderdi abertzaleak oso gertu izan du PSOE, eta urrunago geratu da EAJ

diz. Ezkerretik, Frantzia Intsumisoak 7.366 boto eskuratu ditu. EH Baik hauteskundeetan parte ez hartzea erabaki zuen otsailean.

Herrialdeka, Lapurdin Batasun Nazionala garaile (25.363), PS-Plaza Publikoa bigarren (19.345) eta Renaissance hirugarren oso gertu (18.742). Nafarroa Beherean alde gutxiagoz nagusitu da eskuin muturra (2.946), Europako hauteskundeetara lehen aldikoz aurkeztu zen zentro-eskuineko Jean Lassalle hautagaiaren Landa Landa Aliantza izan da bigarren (2.394) eta Renaissance hirugarren (1.907). Zuberoan irabazi du estuen Batasun Nazionalak (1.207), Landa Aliantzak bigarren postua lortu du

hurbiletik (1.131), eta PS-Plaza Publikoa hirugarren (1.057).

HEGO EUSKAL HERRIAN PSOE NAGUSI

300.178 boto eskuratu ditu PSOEek Nafarroan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; Orain Errepublikak 276.780; CEUSEk 202.791; eta PPk 172.838. Votek (40.579) ozta-ozta baina gainditu egin ditu Sumar (38.487) eta Podemos (36.124). Eskuin muturreko Albise Pérezek Bukatu da Festa hautagaitzak 22.978 boto eskuratu ditu.

Ez da erraza Europar Batasuneko aurreko hauteskundeekin alderaketa egitea boto kopuruan oinarrituta, 2019an parte-hartzea handiagoa izan baitzen beste hauteskunde batzuekin batera egin zirelako, eta aurrekoak orain hamar urtekoak direlako (2014). Hori bai, 2019an EAJ izan zen garaile argia (406.00), bigarren PSOE (306.00) eta hirugarren oso gertutik EH Bildu (300.00). Deigarriena, alderaketa horretan, EAJk lehen postu nabarmenetik hirugarren postura egin



duela da. Boto portzentaian, %27tik %17ra pasa da. EAE mailan EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak (227.973). Alderdi abertzaleak oso gertu izan du PSOE (225.278), eta urrunago geratu da EAJ (194.594).

Herrialdeka, Nafarroan PSOEk (74.861) garaipena erdie-tsi du PPren aurrean (72.856), UPNko bozkatzaileak PPra modu orokortuan joan ez diren seinale. Orain Errepublikak hirugarren (48.762). Voxek 17.238 boto lortu ditu, Sumar (10.017) eta Podemosen (8.394) baturak ematen duena baino mila boz gutxiago. EAJren CEUS 8.230 bototan geratu da.

Arabaren ere PSOE gailendu da (36.280), bigarren postuan geratu den Orain Errepublikak koalizioari alde handia aterata (26.933). PPk (22.201) EAJ gailendu du (19.122).

Bizkaia dagokionez, PSOEk (122.087) aurre hartu dio CEUSi (117.784), eta bien ez da oso urrun geratu Orain Errepublikak (104.845).

Gipuzkoan EH Bildu (96.133) alde handiz izan da garaile, bigarren PSOE geratu da (66.717), eta EAJ hirugarren (57.626).

Hiriburuei dagokionez, Iruñean PPk (%30,74) lau puntu-ko aldea atera dio PSOEri (%26,24), herrialdean gailentze-ko balio izan ez badio ere. Hirugarrena Orain Errepublikak izan da (%18,74), eta laugarren Vox, oso urrunetik (%5,80).

Hego Euskal Herriko gainontzeko hiriburuetan PSOE izan da nagusi.

Gasteizen, PSOEk (%30,92) 11 puntu atera dizkio PPri. Eta popularrekin ia berdinduta geratu da EH Bildu, EAJ laugarren postuan sei puntura utzita.

Bilbon ere PSOE nagusi (%27,68), kasu honetan EAJren gainetik (%23,15). Orain Errepublikak hirugarren postua lortu du (%16,58), eta PP oso gertu geratu zaio (%15,62).

Donostian azkenik, PSOEk (%27,48) lau puntu atera dizkio EH Bilduri (%23,84). EAJ izan da hirugarren (%17,78), eta hurbil geratu zaio PP (%15,13).

PARTE-HARTZEA


Parte-hartzeak gutxiagatik gairitu du boto eskubidea duten herritarren erdia: Lapurdin abstentzioa %46,50ekoa izan da; Nafarroa Beherean %45,00; Zuberoan %46,39; Nafarroa Garaian %47,23; Araban %50,14; Bizkaian %48,31; eta Gipuzkoan %49,90. ●



EFE

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



Renew

Liberal europar zalea, ALDE taldearen oinordekoa. Emmanuel Macron Frantziako presidentea ordezkatzen du.

S&D

Ezkerreko eta zentroko alderdi sozialdemokratak. Espainiako presidente Pedro Sánchez ordezkatzen du.

PPE

Zentro-eskuin tradizionala, kristau demokratik eta kontserbadoreak. Donal Tusk Poloniako lehen ministroa ordezkatzen du.

ECR

Eskuin muturra, kontserbadore eta erreformistak. Giorgia Meloni Italiako lehen ministroa ordezkatzen du.

ID

Ultraeskuindarra, populista eta euroeszeptizista. Marine Le Pen frantziar oposizio burua ordezkatzen du.

Berdeak/EFA

Alderdi berdeak, progresistak eta abertzaleak. Alemaniako kanpo ministro Annalena Baerbock ordezkatzen du.

NI


Inskribatu gabeak, alderdi patriotikoak eta neonaziak (AfD). Viktor Orban hungariar presidentea ordezkatzen du.

Ezkerra / The Left

Ezkerrekoak, ekologistak, abertzaleak eta Europarekiko kritikoak. Irlandako oposizio buru Mary Lou Macdonald ordezkatzen du.

Besteak

Oraingo zaldarik ez duten europarlamentariak.

**Euskal Herriko botoak**

ZERRENDIA EUROPAR PARLAMENTURAKO	2024	2019
PSOE	300.372	306.729
EH Bildu - Orain Errepublikak	276.842	300.790
EAJ / Geroa bai - CEUS	202.864	406.537
PP	172.879	135.585
Vox	40.586	27.883
Sumar	38.503	-
Podemos	36.140	163.361
RN	29.516	17.383
Se acabó la fiesta	22.976	-
PS	22.182	8.856
Renaissance	17.383	30.116
Alliance Rurale	10.138	-
Les républicains	9.205	10.562
Europe Écologie	8.899	19.368
La France insoumise	7.366	6.513
PACMA	6.064	-

● Hego Euskal Herrian aurkeztu diren alderdiak.

● Ipar Euskal Herrian aurkeztu direnak.

Euskal herritarrak Europako legebiltzarrean

Oihane Agirregoitia
EAJ - CEUS



Pernando Barrena
EH BILDU -
ORAIN ERREPUBLIKAK



Idoia Mendia
PSOE



Elena Sancho
PSOE



**Francisco Javier
Zarzalejos**
PP



**Antonio
López-Istúriz**
PP

OHARRA: Iratxe Garcia eta Leire Pajín PSOEko diputatuak ere Euskal Herrian jaiotakoak dira.

ANALISIA

Eskuin muturrak hazkundean jarraitzen du



ASIER BLAS

Ez da egon tsunamirik eta beti bezala parte-hartzea baxua izan da. Halere, eskuin muturreko alderdiak eta, oro har, euroeszeptikoak, indartu egin dira. Kaltetu nagusiak zentristak izan dira: progresistak (Berdeak) eta liberalak (Renew Europe). Aldaketa hori Alemania eta Frantzia sustraitu da nagusiki. Marine Le Penen Bilgune Nazionalak izandako gorakadak eta Emmanuel Macronen koalizioaren beherakadak presidenteak parlamentua disolbatu eta hauteskundeak deitzera bultzatu du. Europan kezkaz ikusten da Alemaniarentzako Alternatibaren (AfD) igoera, nahiz eta kristau-demokratengandik (CDU) urruti gelditu den. Italian eskuin muturrek kromo aldaketak egin dituzte Lega eta Fratelli d'Italia alderdien artean, baina funtsean antzeko babes mantenduko dute.

Centre for European Policy alemaniar *think tank* europazaleak eginiko ikerketaren arabera, euroa 1999tik indarrean sartu zenetik 2017ra arte frantziar bakoitzak 55.996 € eta italiar bakoitzak 73.605 € galdu zituzten batez beste; alemaniarrek aldiz, pertsonako 23.116 € aberastu ziren. Horrek azaltzen du Italian eta Frantzia eskuin muturrak arrakasta Alemanian baino lehenago lortu izana. Ordutik, kaltetu ekonomikoen kluba Alemaniara zabaldu da egungo gatazka geopolitikoaren itzalean. AE-Bek Europar Batasuna bahitu dutenetik alemaniar ekonomia burua altxatu ezin dago. Hautesleen erantzuna aukera subiranista gisa identifikatzen dutenak indartzea izan da: AfD, CDU eta Sahra Wagenknecht Aliantza (BSW).

Iparraldeko Europan ezkerreko alderdiak indartu eta eskuin gogorrek apur bat ahuldu dira. Espainian berritasuna eskuin muturraren igoera izan da lau jarlekuetatik bederatzira pasatuta. Hungarian eta Eslovakian euroeszeptikoek irabazi



Faxismo berriaren leloetako bat: "Alemania lehena".

Eskuin muturrak politika egiteko tranpolin bezala oso ondo erabiltzen daki Europako Parlamentua. Bere aurkariak aldiz, batez ere indar aurrerakoiek, horiei aurre egiten nekez asmatzen dute

dituzte hauteskundeak, Polonian eskuin muturrek 26 eurodiputatu atera dituzte, zentro-eskuinetik ezkerreko alderdiek atera dituzten 27etatik gertu.

Edonola ere, praktikan gauzak ez dira asko aldatuko. Hauteskundeetako garaile izan den Europako Alderdi Popularrak bigarren talde parlamentarioa izango den sozialdemokratekin egingo du koa-

lizioa. Bien artean gehiago osora ailegatzeko nahikoa izango dute Renew Europe talde liberal-demokraten babesarekin, aurreko legegintzaldian bezala. Bestelako kontua da popularren taldean badirela alderdi batzuk eskuin muturretik gertu daudenak.

Baina ez du gehiegi axola, Europako Parlamentuak oso eskumen gutxi ditu edozein parlamentarekin alderatuta. Halere, ikusgarritasun eta botere sinboliko handia du. Horregatik, eskuin muturrak politika egiteko tranpolin bezala oso ondo erabiltzen daki. Bere aurkariak aldiz, batez ere indar aurrerakoiek, horiei aurre egiten nekez asmatzen dute, batez ere, nortasun antifaxista haizatzea estrategia nagusi gisa hartu dutelako, fenomeno ulertzeko laguntzeko ezinbestekoak diren elementuei protagonismoa eman gabe: europar erakundeen eta eliteen diskurtso supremazista, politika neoliberalak eta interes europarrak defendatzeko ezintasun geopolitikoa. ●

FRANTZIAKO ESTATUA

Eskuin muturra garaile, Bourbon palazioari so

JENOFA BERTHOKOIRIGGIN

Aurreikusia zegoena baieztatu da: Le Penen RN Batasun Nazionalek atera da garaile Frantziako Estatuan. Botoen %31,37 jaso du eskuin muturraren 28 urteko Jordan Bardella politikari gaztearen zerrendak, eta 30 aulki izanen ditu Bruselan. Kezkagarria da egoera, 7.765.562 bozkatzaile dituelako, aitzineko hauteskundeetatik ia 2.500.000 boto gehiago. Lurrikararen uhinak Frantziako Legebiltzarrerara arte sentitu dira: Bourbon palazioa desegin du Emmanuel Macron presidenteak, hauteskunde berrietara deituta –ekainaren 30ean eta uztailaren 7an izanen dira–. Macronen Renaissance alderdia gelditu da bigarren, bost urtez pisu handia galduta: ia 1.500.000 boto gutiago eta botoen %14,60 jasorik, RNetik urrun geratu da. Badoa aitzina eskuin muturra Frantziako Estatuan, eta nagusitasuna geroz eta argiago uzten ari da: elkarrengandik hurbil-hurbil gelditu baziren 2019an Bardellaren zerrenda (%23,34) eta Macronen alderdiko Nathalie Loiseaurena (%22,42), aldi honetan 16,77 puntuko aldea bada bien artean. Galtzaile handien zerrendan dira ekologistak ere: 2019an hirugarren kokatu eta 13 aulki lortu bazituen Europa Ekologia alderdiak (%13,48), aldi honetan 1.690.000 boto baino gehiago galdu ditu eta botoen %5,50 jasota seigarren kokatu da, zortzi aulki galduta. Errepublikarrak alderdi eskuindarrak botoak galdu baditu ere, hein berdintsuan gelditzen da, nahiz eta bi aulki galdu. Ezkerrek, ordea, gora egin du: Alderdi Sozialista indartu da ia bi milioi boto irabazita 2019az geroztik eta %6,19tik %13,83ra pasa da. Ezker muturreko Frantzia Intsumisoak ere milioi bat boto irabazi ditu. Horiek horrela, eskuin muturrak 30 eurodiputatu ditu Bruselan, Macronen alderdiak eta ezkerrek hamahiruna, ezker muturrak bederatzi, eskuinak sei, ekologistek bost eta Reconquete alderdi faxistak beste bost.

LEGEBILTZARRAREN DESEGITEA

Emaitzen berri ukan bezain laster eman zuen Legebiltzarra desegiteko erabakiaren berri Macronek: "Ezin dezaket egin ezer pasa ez balitz bezala. (...) Burujabea den herriari eman diezaiozun hitza, ez da hori baino gauza errepublikarragorik". Frantziako Legebiltzarraren desegitearen berri ukan eta poza lehertu zen eskuin muturrekoen artean. Bourbon palazioan garaile ikusten dira eta kanpaina sutsua eramane du horren alde Marine Le Penen alderdiak. Ezkerra kezkatutik agertu da, "suarekin jolas egitea" leporatuz Frantziako presidenteari. 2022an iragandako hauteskundeetan sekulako saltoa eman eta bigarren kokatu zen RN, 88 aulki lortuta. Eskuin muturraren garaipena oztopatzeko bidean, ezkerrek beharko luke baturik aurkeztu, eta hasiak dituzte elkarren arteko bilerak, batasun hori lortzeko asmoz. ●

ESPAINIAKO ESTATUA

Espainia "errebeldea"

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Gehien mugitu den titularra: PPK irabazi ditu hauteskundeak, bereziki Ciudadanos oso-osorik jan duela, eta PSOEk berdin jarraitzen du, gutxi gorabehera, guztizko hamar boto-emaitetatik hiru mantenduta. Beraz, PSOEk eutsi dio batailari, eta gaitz erdi, ikusita European gertatu dena, nola agintean zeuden presidente edo lehen ministroek dimisioa aurkeztu behar izan duten eskuinak edo eskuin muturrak emandako kolpea tarteko.

Pedro Sánchez presidenteak barandari eutsita segitzen du. Hein batean, eskuinaren botoa hasieran esperotakoa baino banatuagoa izan delako; bestela, bai, nabariagoa izango zen. Kalkulu erraz bat eginda, eskuin eta ultraeskuin espainolistaren igoera argiago ikusteko: 2019an, 5,9 milioi boto zituzten; eta 2024an 8,5 milioi.

"Anti-Sánchez" kanpainari esker, PPK ultraeskuin bat ez, bi elikatu ditu. Vox pozik agertu da, boto portzentajea %6tik %9ra igo delako, baina ernegaturik ere bai, beste %4,6 bere ingurumariak mobilizatu duelako Voxi bizkar eman eta mugimendu faxista berri baten alde: Se acabó la fiesta (Bukatu da festa, euskaraz).

FESTA HASI BESTERIK EZ DA EGIN

Soziologikoki, esan daiteke ja ziurtasun osoz, beste fase batean sartu dela Espainian politika egin eta botoa kaptatzeko modua. Se acabó la fiesta-k 800.000 boto lortu ditu, Podemosek eta Irene Monterok baino 210.000 gehiago, eta Sumarrek baino 10.000 gutxiago soilik.

Alvise Pérez, *youtuber* edo *influencer*-ak –dena delakoa, baina faxista– sortu berri duen "mugimenduak" boto mordo mobilizatu ditu foku mediatikotik kanpo –23.000 boto Hego Euskal Herrian–, eta berrikuntza da horrela izatea. "Errebeldetzat" du bere burua, "gauzak argi esaten dituen bakarra" delako. Ezker-eskuin jendeari edota oro har politikaz erabat paso egiten duenari gustatu ahal zaizkion mezuak zabaldu ohi ditu: "Politikari denak ustelak dira"; "Baserriko tomateek paper burokratiko gehiago behar dituzte etorkin ilegalek baino"; "Espainian ez dago adierazpen askatasunik".

Mezu orokor horietatik harago ez da inoiz ere joan, ez baitu mamirik, baina ezta beharrik ere sare sozialen *trend* garaiotan. Gezurak zabaldu ditu zientoka, ageriko era batean, propos, bainajendeari berdin dio informazio horiekiegia izan ala ez. *Fake news*-aren errege da Pérez, eta ez da ezkututzen. Ondo neurtua du sare sozialen eragina. Auzitegietan dozenaka salaketa jarri izan dizkiote difamazioagatik, desinformatzeagatik eta pertsonen izen onaren aurka jotzeagatik. Baina berdin dio berari. Edo ez: hainbeste denuntzia pilatu ditu bere kontra, aforamendua eta immunitatea lortzeko aurkeztu dela Europako parlamentura, bere "adierazpen askatasuna" gehiago blindatzeko. Alegia, desinformatzen segitzeko. Eta jendeak bozkatu du, ia-ia Orain Errepublikak bezainbeste. ●



“Eskuin muturraren aurkako gotorlekua izango gara”

Pernando Barrena
ehbildu



“PSOEk eta bere bazkideek botoak galdu dituzte, bereziki EAJk”

Javier De Andrés




“Emaitza pixka bat hobeak espero genituen. Hautesle klasikoen zati bat ez da botoa ematera joan”

Andoni Ortuzar
 **eaj pnv**



“Prest gaude herrialdea berrezartzeko, prest masa immigrazio honi amaiera emateko”

Marine Le Pen
 **Rassemblement National**



“Berretsi da Pedro Sánchezen gobernu progresistak duen babesa”

Teresa Ribera
 **PSOE**



“Ultraeskuina aukeratzeak frantziarren pobretzea dakar”

Valérie Hayer
RENAISSANCE



ETXEBIZITZA MERKANTZIA BIHURTUTA, ULTRAESKUINARI ATEA IREKI DIO EUROPAK

Etxebizitzaren eta alokairuen prezioek mugarik gabe jarraitzen dute gorantz eta milioika lagun egoera oso prekarioan utzi ditu horrek: gazteek ezin dute emantzipatu, herritar asko euren auzotik ostikoka bota dituzte, eta beste askorentzat infraetxeak partekatzea da irtenbide bakarra. Oinarritzko eskubidea behar lukeena, 1980ko hamarkadatik merkatuaren esku uztearen ajeak dira. Eta krisi honetan denak galtzaile, klase ertainaren artean beldurra haizatzen ari den ultraeskuina izan ezik.

 URKO APAOLAZA AVILA

Ultraeskuina Europako Parlamentuan eroso laketu da ekainaren 9ko hauteskundeetan ostean. Alderdi eta koalizio xenofobo eta supremazistek herritar batzuen artean duten harrera gero eta beroagoak hotzikara sortu du Europa osoan: zer ari zaio gertatzen giza eskubideen ustezko sorterreri gisa loriatu izan den etxeari? Analisi politikoak ez dira faltako, ezta ikerketa soziologikoak ere, baina ezin uka Europako ongizate estatuen hondoratzea ari garela ikusten zuzen-zuzenean, eta erorketa handi horren dardarizoez garai bateko mamuak esnatu dituztela.

Etxebizitzarekin gertatzen ari dena da horren erakusle. Krisia ez da Zarauzko Malekoiko, Donostiako Mirakontxako edo Iruñeko Alde Zaharreko kontu bat. Euskal Herriko geografia osoari eragiten dion zerbait da aspaldidanik, eta orain, gizarteko sektore guztietara hedatu den problema handi bat bihurtu da, ez gurean bakarrik, baita Europako beste herrialde askotan ere. Eurostat agentziaren arabera, 2010etik 2022ra etxebizitzak batez beste %47 garestitu dira eta alokairuen prezioak %18 egin du gora.

Datu hori ekarri du gogora Jon Henleyk *The Guardian*-en, baita beste datu batzuk ere, adibidez: Alemanian bost familiatik batek bere soldataren bi heren gastatzen ditu etxebizitzaren alokairuan, eta Europako hiri askotan etxebizitza sozial bat lortzeko itxaronaldia hamar urtetik gorakoa da. “Hamarkada askotan

egosten egon eta gero, higiezinaren krisia gainezka ari da Herbehereetatik Portugalera, Grezian, Alemanian eta Britainia Handira. Alokairuen prezioak izugarri igo dira, eskuragarritasunak nabarmen egin du behera eta etxebizitza arazo politiko bat bihurtu da”, dio egunkari britainiarreko Europako korrespontsalak.

Krisi horrek ondorio katastrofikoak dakartza. Adibidez, emantzipatu ezin diren gazteen heinak gora egiten jarraitzen duela irakurri dugu Naiz.eus-en, Eurofund erakundearen datuei erreparatuta –azken bost urteetan %3 egin du gora gurasoei bizi diren 25-34 urte arteko gazteen kopuruak-. Baina beste ondorio askoz kezagarriago bat badakar: faxismoak kox-kox jo du Europaren atean, etxebizitzaren krisia aprobetxatuta.

Henleyk koiuntura horren gako batzuk eman dizkigu *The Guardian*-en: “Etxebizitzak ultraeskuinaren laguntza-motore izateko ahalmena du, immigrazioaren gaiak bezainbeste”, ohartarazi du. *Fix Europe's housing crisis or risk fuelling far-right, UN expert warns* (Edo arreglatu Europaren etxebizitza krisia edo arriskatu ultraeskuina elikatzea, NBEko adituen abisua) artikuluan Nazio Batuen Erakundeko etxebizitza eskubidearen errelatore Balakrishnan Rajagopalen hitzak jaso ditu kazetariak. “Etxebizitza krisiak jandak ez die eragiten soilik diru-sarreretatik txikiak dituzten pertsonen, immigranteen edo guraso bakarrek familiei, klase ertainei ere eragiten die. XXI. mendeko ara-

zo soziala da”, azaldu du Rajagopalek.

PVVk (Askatasunaren Aldeko Alderdia) aisa irabazi zituen Herbehereetako bozok pasa den urtean, islamofobo batek gidaturik: “[Etxebizitzaren] arazoa boto-emileen kezka nagusienetako bat izan zen hauteskunde horietan”, nabarmendu du Henleyk eta gauza bera gertatu da Portugalen, eskuin muturrean kokatu daitekeen Chega alderdiak hirukoiztu egin baititu emaitzak etxebizitzaren gaia-ri kosk eginda.

Alemanian duela gutxi egindako ikerketa akademiko batek alokairuaren hazkunde eta eskuin muturraren gorakada lotu ditu –ez du halabarharrez immigrazioaren kontrako jarrera garbirik egon behar, askoz sotilagoa da mezua-. *Rental Market Risk and Radical Right Support* (Alokairuaren merkatuaren arriskuak eta eskuin muturrari babesa) izeneko ikerketa interneten dago kontsultagai eta haren egileetako bat den Oxfordeko Unibertsitateko Tarik Abou-Chadirekin hitz egin du *The Guardian*-eko kazetariak.

Alemaniarako Alternatiba (AfD) hartzen ari den indarrak galdetuta, “estatusa galtzeko beldurra” faktore garrantzirik dela dio ikerlariak: “Mehatxu eta ziurgabetasun ekonomiko ugariz osaturiko multzo handiago baten parte da etxebizitza, antzietatea elikatzen duena”.

AfDren igoeraren zati handi bat, gune urbanoetatik harago, landa eremuetan ere gertatu dela konturatu da Abou-Chadi, hain justu alokairuak baxuen man-



WIKIMEDIA COMMONS / ELKE WETZIG

ALEMANIA ultraeskuinaren gotorlekuetako bat bihurtu da AfD alderdiaren gorakadarekin, besteak beste etxebizitza akuilu bezala hartuta. "2033: ezin izango genuke asmatu hau berriz gertatuko zela", dio argazkiko afixak, 1933an nazismoak boterea hartu zueneko urtea gogoan.

tendu diren tokietan. Nola da posible? "Igoeraren arrazoia ez dira benetako zailtasunak bakarrik, atzean dagoen kezka ere bada: estatus soziala eta ekonomikoa mehatxaturik egotea", ondorioztatu du.

1980KO HAMARKADA: DENA SALGAI

Merkatu laboral prekarioarekin batera, hirigintzaren garapen baztertzaila bihurtu da faxismoak Europan koska bat gorantz egiteko behar zuen beste makulua, horrek dituen "inplikazio politiko garrantzitsuekin", azpimarratu du Abou-Chadik bere ikerlanean.

Ondo letorkiguke, beraz, begiratzea zer egin dugun, azkeneko urteetan ez bada hamarkada luzeetan hirigintza "ja-sangarria" deituriko horrekin. Donostian maiatzaren 26an kalera irten ziren

zientoka lagunen aldarrikapenak ez dira debaldekoak: hiria "salgai" jarri duten horien aurrean beste eredu bat eskatzen dute, hotelak, etxebizitza turistikoak eta *culinary*-ak edozein bazterretan egiten utzi beharrean. Badakigu gentrifikazioa ez dela Donostiako joxemartarren arazo bat soilik, beste hiri eta herri askotara ere iritsi den fenomeno global bat da, eta badu esplikazio bat azken 40 urteetako neoliberalismoan.

"Europak 1980ko hamarkadako Kool-Aid-etik edan zuen", dio Balakrishnan Rajagopal NBEko errelatoreak *The Guardian*-en. Goxoki bizigarri horren antzera, merkaturia borborka ari zen garaiez mintzo da, *thatcherismoa* indartu eta politika sozialak ahuldu zirenekoaz. Bere ustez, higiezinaren krisia sortu da "etxebizitza tratatu delako saldu eta erosi daitekeen

beste edozein ondasun bezala". Estatuak planifikatzeari utzi zion, pentsatuz merkatuak egingo zuela dena... "Baina merkatuek benetan euren burua baino ez dute zaintzen", dio.

Margaret Thatcherrek lelo pozoitsu bat asmatu zuen: herritarrek etxebizitza "erosteko" eskubidea zutela. Horrela, politika publikoen bidez kudeatzen zena eta oinarrizko eskubidea behar lukeena, finantza merkatuen eskuetan geratu zen. Bere atzetik joan ziren Europako gainerako ia herrialde guztiak. Lau hamarkada geroago, estatuek ezin dute etxebizitza duina bermatu herritar guztientzako, eta PVV, Vox edo Le Penen RN bezalako alderdiek migratzaileei egozten diete errua, errazagoa zaielako ezer ez duena jomugan jartzea, beraiekiko hain desberdinak ez diren elite neoliberalekin etsaitzea baino. ●





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



DIASPORAN EGUNGO EGUNEAN BIZI DIRA, ARBASOEN JATORRI ETA HISTORIAZ PIXKA BAT AHAZTUTA



Pilotari famatua izan zen, munduko txapelduna, baina tartean behin baizik ez zuen Euskal Herrian jokatu, Mexikon jaio, hazi eta hantxe bizi baitzen, gurasoak haraxe joanda 1936ko gerratik ihesi. Abertzalea, Mexikoko euskal etxeko presidentea, Jaurlaritzaren aholkularia, amezketarra emazte laguna... Gurean da bisitan, ia urtero.

 MIEL ANJEL ELUSTONDO  ZALDIERO / ARGIA CC BY-SA

Makulua hartuta zatoz...

Horixe du kirol profesionalak, higadura! Gaztetako gehiegikeriak ere hortxe dira beti. Inoiz, hiru futbol partida ere jokatu izan nituen iganderen batean! Pilotari izan baino lehen, futboleko jokatu bainuen. "Liga espainola" izeneko egiten zen Mexikon, eta nik Athleticekin jokatzen nuen. Maristetan ikasi nuen, eta kolegioko selekziokoa izan nintzen beti. Gero, UNAMera [Mexikoko Unibertsitate Autonomoa] hasi nintzenean, unibertsitateko interliga irabazi genuen, eta gure ekipoko bi Toluca taldeak hartu gintuen. Urte erdia egin nuen han, galarazia bainuen jokatzea, hamalau urte nituela tumore bana izan nuelako tibiatumurretan.

Ezin jokatu izan zenuen, orduan?

Jokatzea galarazi zidaten, baina, jakina, ez nuen kasurik egin! Ezkutuan garbitu behar izaten nuen kirol arropa, gurasoek ez jakiteko. Hiriburuan bizi nintzen, baina Toluca 60 kilometrora zegoen! Entrenamenduak astegunetan izaten ziren, eta, ni, unibertsitatean ikasten, ezin, nahita ere, entrenamenduetara joan, eta entrenamenduetara ez joateak isun bat ordaindu behar nuela esan nahi zuen! Azkenerako, Toluca niri ordaindu beharrean, neu nintzen klubarekin zorretan! Oso garai ederra! Pare bat partida jokatut nituen lehen mailan, Vicente Pereda (Toluca, 1941, taldeko jokalaria izarra, golegilea) lesionatu zenean, eta sekulako ilusioa egin zidan.

Anai-arrebak unibertsitateko irakasle izan ziren. Zu, kirolari...

Bai. Andoni, gradu ondoko zuzendaria izan zen UNAMen, eta Kimika fakultateko buru. Amaia, historialari ezaguna dugu. Ni, aldiz, pilotari profesionala izan nintzen eta, gero, enpresaria. Plastikoinjekzio lantegia ireki nuen, eta zortea izan nuen. Kexarik ez. Euzkamex jarri nion enpresari izena, Sabinoren [Arana Goiri] k-rekin, horratik! Izen hori dela-eta, Mexiko hiriburuan kale batek *Euzkaro* du izena, kolonia edo barruti batek *Euzkadi*, ibilgailuetako gurpilak egiten dituen etxe batek *Euzkadi*... Anjel Urrazak fundatu zuen gurpil lantegi hori, eta orain ere euskaldunak dira nagusiak: zunuzegitarrak. Hortxe irauten dugu euskaldunok.



Josu Garritz Ruiz

1944, MEXIKO



Gerra ondoko erbesteratzearen historia. Langile hasi zen, furgoneta gidari. Produkzio-buru izan zen gero Bacardi lantegian eta, hurrena, enpresari. 1993an, Garapenerako Euskal Mexikar Institutuko zuzendari izendatu zuten eta, hamaika urtean, 140 enpresa eraman zituzten hemendik hara. Gero, erakundea Jaurilaritzaren Mexikoko Ordezkaritza bihurtuta, Kanpoko Harremanetarako Idazkaritzarentzat egin zuen lan. 25 urte inguru jardun du han Jaurilaritzaren aholkulari, 2015era arte, Patxi Lopez lehendakari izan zen garaia salbu.

Pilotari profesionala izan zen, munduko txapelduna pala motzean, Biarritzen 1978an.

Espainiako Gerra Zibilaz gero emigratu zuen familiak hara...

Gure familiaren historia bai, hori da, baina euskaldunak Mexikon askoz lehenagokoak dira. Gure arrebak zehatz-mehatz kontatuko lizuke historia, nik baino askoz hobeto! Kristobal Kolonen garaira joan gabe, XIX. mendearen amaieran kotoi-biltzaile nabarmendu ziren euskaldunak han [San Luis Potosi], [Leonardo] Zuloaga buru zela. Honen andrea [Luisa] Ibarra zen. Nik uste Zuloagak ekarri zituela Basagoiti-eta. Zuloagaren alabarekin ezkondu zen, adibidez, Eneko Belaustegigoitiaren aita. Diruketa egin zuten, jakina. [Espainiako] Gerra Zibilaz gero, denetarik joan zen, baina, gehienak, ikasiak, kulturadunak, eta Mexikon aurrera atera ziren, hango jendearen formazioa eskasa baitzen.

Zuen aita EAJko kide izan zen, baita ELA-STVkoa ere, *Euzkadi* egunkariako erredaktore – berak idatzi zuen Gernikako bonbardaketaren albistea, adibidez–, bere deserriratzea ere idatzi zuen...

Mexikora joan behar izan zuen, ihesi, eta hantxe ezagutu zuen gure ama, Alizia Ruiz Roteta, Bilboko Elkano kalekoa. 1940an ezkondu ziren. Amaia handik bi urtera jaio zen, ni 1944an, eta Andoni zena 1947an. Gure aita-eta hamazazpi senide ziren, eta anaia nagusi Blasek –bere aita, kasik–, Tolledora-edo [Espainia] eraman zuen larru pirograbatua olioan ikastera. Mexikora heldu zenean, horretan hasi zen lanean, Espainiako Kasinoan, besteak beste. Nonbait, aulkiak-eta armarriz grabatuak zituzten, hondatu samarrak, eta berrogeitaka aulki zaharberritu zituen gure aitak. Baita Moreliako katedralako ateetako barrualdea ere.

Ibilia, horratik!

Bai... Gu umeak ginen, baina gogoratzten dut aita ezker-eskuin zebilela lan haiek egiten. Gero, heraldikari heldu zion, armarrak egiten hasi zen, ahal zituen guztiak noble bihurtzen Mexikon! Kar, kar... *Euzko-Deya* aldizkariako zuzendari ere izan zen 1940az gero, Ruiz de Azua *Ogoñope*-rekin [Antonio Ruiz de Azua Zabaleaskoa, Elantxobe, 1904 – Mexiko, 1974] batera. Gaur egun, *Ogoñope*-ren ilobetako bat da Mexiko hiribu-

ruko Euskal Etxeko presidente, Julen Ruiz de Azua.

Zure familiaren historiara itzuliz, aitak euskaldun izatea sartu zizuen buruan?

Euskaldun izatea buruan sartzea zen, izatekotan, asteburuetan euskal etxera joatea, hango lagunekin egotea, eta Mundet kirol klubera joatea. Mexiko erdian hartzen genuen autobusa, hantxe bizi baitziren Espainiako errefuxiatu denak. Bi autobus hartu behar izaten genituen Mundet hartara joateko, ordubeteko bidean. Katalan batek egina zen klub hura, eta igerilekua, pilotalekua eta gainerakoak zituen. Handik, Maderoko euskal etxera joaten ginen, oinez, aitarekin, dantza taldearen entseguetara, asteko egun batean-edo. Egun handiren bat baldin bazetorren, sarriago joaten ginen euskal etxeko entsegu haietara.

Euskal etxeko dantza taldearen garrantzia...

Gure kasuan, horrexek blaitu genituen, ez etxeko eraginak. “Hauxe dugu etxea!”, esateko moduan. Amaiak eta biok, adibidez, sekula ez genion bide horri utzi. Andoni, berriz, bidean galdu zen, pixka bat: batetik, asturiar jatorrikoa hartu zuelako emaztea, eta, bestetik, berriz, buru-belarri sartu zelako unibertsitateko lanean. Hala



ESPAINIA

“Badut erresumin bat Espainiarekin. Gure gurasoek korrika eta presaka ihes egin behar izan zuten, eta horregatixe jaio ginen gu Mexikon. 30 urte nituela etorri nintzen lehenengoz Euskadira, 1974an, eta egon nintzen Espainian, eta egon nintzen Euskadin. Gero, 1978an, pilotan jokatzera etorri nintzenean, ohartu nintzen niretzat Espainia ez zela Madrilgo aireportua besterik. Mexikotik hona etorri eta nire bizimodua Euskadin dago. Espainia herrialde arrotza zait”.



ere, beti harrotu zen bere euskal izaeraz! Esan nahi dut euskal lagunartea utzi-edo egin zuela. Nik, adibidez, betiko lagunei eutsi nien: Pedro Menoyo, Javi Urutiaga...

Martin Barinagarrementeria...

Bai, Martin ere bai! 1950ean-edo Santurtzitik Mexikora itsasontzian joandako bederatzi haietakoa, Martin, gure euskal etxeko presidente izandakoa... Ondo ezagutu nuen Martin, eta harekin batera abentura hura egindako batzuk: [Jose Luis eta Manolo] Algorri anaiak, Agustin Palacios... [Jose Luis eta Jose Ramon Bilbatua, Ismael Martin del Rio, Felix San Mames Loizaga eta Gregorio Solano].

Pilotari izan zinen Mexikon, eta munduko txapelduna izatera ere heldu zinen 1978an, pala motzean. Nola egin zinen pilotari?

Gure aita Mundeteko bazkide izan zen 1944az gero. 310. bazkidea, eta kontuan hartu lehen 300ak Mundet familiak beretzat gorde zituela! Aitak pilotan jokatzan zuen, eta Mundeten berriz, aukera haiek denak genituen, ahal beste kirol egiten nituen: igerian, pilotan, futbole... Esaterako, mutikotatik hasi nintzen igerilekuan, batean crawl eta bestean jauziak, frontoirako grinarik gabe. Egia esan, ezkondu arte ez nintzen pilotan hasi!

Hara, bestea!

Bai... 27 urte nituela ezkondu nintzen, eta, ordu arte, futbole... ibili nintzen gehienbat, baina, unibertsitate garaian,

futboleko selekzioan ez ezik, saskibaloikoan, beisbolekoan, pilotakoan, eta igeriketakoan ere jokatu nuen. Kiroletarako erraztasuna nuen! Zalutasuna! Dantzari nintzen, eta [Agurra dantzatzean-eta] eta belaunak aurpegia jotzeraino jasotzen nuen hanka! Entsegu kontua ere bazen, hainbat ordu ematen baintuen entrenatzen. Pilotan jokatu nuenean ere, inor ez zen ni bezainbeste entrenatzen ibiltzen: frontoian ni bakarrik, hartu 30 pilota eta bata bestearen atzetik erreboteraino bota, eskuinez edo errebezez txapa gainean uzten! Hurrena, pilota erreboteraino botatzen, jasotzen eta zabalera botatzen! Horretantxe jarduten nuen bi orduz, behin eta berriz eta askotan, partidetan jokaldia egin ahal izateko!

Zuen aita ere pilotan jokatzan zuen...

Bai. Eta gauza bat: jokatu behar nuenean, behin ere ez zidan ezer esaten, nire kideari esaten zion! "Aldo, joka ezak ezker paretatik... Josuk pilota halako moldez jasotzeko, tantoa egin dezan". Niri ezer esan beharrean, nire kideari ematen zizkion aginduak! Pilotari ona izana zen gure aita, Jesús Garritz, aparta zen kantxan kokatzan, eta dohain horixe jaso nuen, ze kontua ez da bakarrik pilota jotzea, kantxan ondo kokatuta egoten jakitea baizik.

1977tik 1986ra pilotari izan zinen...

Erretiratu nintzen arte. Baina esan dizut, berandu hasi nintzen pilotan, 34 urte ni-

tuen ordurako! Nire kideak, Pepe Musik, 21! Ordurako, Musik baino askoz gehiago nekien pilotan! Sekulako errekorra osatu genuen binaka: 165 partida jokatu genituen, larruzko pilotarekin edota pala motzean, eta hiru baino ez genituen galdu, hiru! Haietako bat, munduko finala Mexikon [1977], Argentinaren kontra, baina partida hura galtzeak asko baino gehiago erakutsi zigun...

Zer erakutsi zizuen, adibidez?

Ez dakit esaten, baina zer edo zer erakutsi zigutela, bai, ze harrezkero ez genuen behin ere partidarik galdu! Zer erakutsi zigun, adibidez... inoiz baino batua egoten. Ez genion bata besteari ezer aurpegiratu, esate baterako. Handik urtebetera, Argentinara gonbidatu gintuzten, Euskal Pilotaren Nazioarteko Federazioaren 50. urteurrenara, eta Mexikoko finala errepikatu genuen Buenos Airesen. Eta irabazi egin genien. Eta hura poza! Handik atzera ez genuen partidarik inoiz galdu!

Zuen aita pilotan jokatzan ari zela hil zen, Mundet klubean.

Bai. Elkarrekin joaten ginen frontoira, pixka bat jokatzan genuen, eta gero

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu

SIGACUS

📞 943 453 588 · www.sigacus.com

aholkukoop
Fiskala Kontables Laborala

EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA

Ametzagaina 17, behe / Donostia
943 005 680 · aholku.eus

gure semea etortzen zen, aitaitarekin binaka jokatzera, gure Josu aurrelari zuela. Ni, orduan, beste kantxa batera joaten nintzen neure entrenamenduak egitera beste zenbait pilotarirekin. Behin, horretan ginela, abisua jaso nuen: “Hire aita zerraldo erori duk!”. Korrika joan nintzaion. Bat-batean hil zen, bihotzekoak jota. Uste dut gure artetik alde egiteko modua ere pentsatua zuela.

Zer esan nahi duzu?

Bi aste lehenago ere bihotzeko murmurioa izan zuela. Medikuak atera zuen atakatik. Hori dena gero jakin genuen, ordea. Ez zigun ezer esan. Murmurioa izan eta ondoko igandean ez zuen pilotan jokatu, atsedeten. Handik astebetera, berriz ere pilotan, hil zen. 77 urte zituen. Azkeneko bi partidak nirekin eta gure semearekin jokatu zituen! Amari esatea izan zen okerreana... Gure aita hil eta hamalau urte egin zituen bakarrik gure amak, 92 urterekin hil baitzen.

Alizia Ruiz Roteta, zuen ama. Haren familian bada fusilamendu historiarik.

Bai, bada! Julián Zugazagoitia Mendiet [Bilbo, 1899 – Madril, 1940], beste abertzale batzuekin batera Frantziatik estraditatu eta fusilatu zuten. Gure ama, Julián Zugazagoitiaren andrearen iloba zen. Gure amamaren ahizpa, Julián Zugazagoitiaren emaztea. Zugazagoitia [Espainiako] Herrizaintza ministroa izan zen Errepublikara garaietan, Frantziara ihes egin zuen, baina han Gestapok harrapatu, Espainiara ekarri, eta fusilatu zuten.

1940an...

Companys fusilatu zuten garai berean-edo. Jakin zuenean, buruko isuria eman zion Zugazagoitiaren andreari, eta ahizpa –gure amamarekin batera-eta–, arduratu zen seme-alabez: Fermín, Olguita, José Mari, Jesús eta Julián. Hil ziren denak. Zugazagoitia Ruiz ziren, eta ja ez da inor geratzen Mexikon. Gerrak markatu zuen gure familiaren historia, dudarik gabe! Gure familian, batzuk Argentinara joan ziren, beste batzuk Venezuelara, beste batzuk Mexikora... Mexikoko Garritz bakarrak gara, gure aita hara joan zelako! Aldiz, Iruñera joan eta Garritz mordo bat dagoela ikusten dut! Garritz. Gure aita sabindarra zen ordea, eta Garritz jarri zuen, euskaratuta-edo.



Zertan da euskaltasuna zeure familian, zeure ondorengoetan?

Jainkoari esker, garbi dakite zer den Euskadi, eta nazionalitate horrek zer esan nahi duen, baita beraientzat ere. Euskal

lagunartea ere badute, eta dardaraka bizi dute euskal izatea. Askok galduta sentimen hori Mexikon, eta Larra-solo deitura izanagatik ere, jatorriaren arrastorik ere ez dute! Familia bakoi-tzak ahal duena egiten du. Gure arreba Amaiak egina du azterketa, eta lehen belaunaldian euskaldunak euskaldunekin ezkontzen ziren, adibidez. Hurrengoan, euskaldun ez direnekin. Azkenean, euskaltasun hori gero eta urrutia goko da. Nik dantza taldeen arabera katalogatzen dut hori. Gu baino talde zaharragoak, bata bestearekin ezkondu ziren, hamarretik bederatzi. Nire belaunekoetan, Pedro Menoyo euskaldun batekin ezkondu zen; Jauregi ere bai... Neu izango nintzen euskaldunarekin ezkondu ez zen bakanetakoa.

Zure emaztea zenak Valentziakoa (Herrialde Katalanak) zituen gurasoak, irakurri dudanez.

Bai, kolegio berean ikasitakoak ginen biok. Gure seme-alabetan, esaterako, euskaldun izatea ez dago beren lehentasunen artean; alabaren kasuan, bederen. Garai bateko gurasoek euskaldunak elkarrengana biltzen saiatzen ziren, baina aspaldi ez da horrelakorik. Horixe da gure etxeko kasua, eta horixe ikusten dut hemen bertan ere, nahastu egin dela jendea. Urte asko dira, eta beti da zaila hasierako garrari eustea. Diasporan, euskaldunon seme-alabak eta ilobak gero baino gero gehiago ari dira sakabatatzen, eta identitateari eusten badiote ere, egungo egunean bizi dira, arbasoen jatorri eta historiaz pixka bat ahaztuta. ●



FRANCOREN HERIOTZA

“Jai handia izan balitz beza-la ospatu genuen Francoren heriotza. Franco hilda, Mexiko berriz ere harremanetan hasi zen Espainiarekin, eta ia bat-bateko erabaki hura ez ziztaigun euskaldunoi askorik gustatu, artean ez zelako garbi ikusten zer erregimen mota izango zen Espainia. Euskaldunok bagenekien Espainiak ezingo zuela egun batetik bestera bere burua aldatu, diktaduratik demokrazia izatera jo”.

BIZITIK AULKIRA

“Gure aitaren garaian, bizia jokatzen zuten Euskadiren alde. Orain... aulkia jokatzen dute! Erosoegi dabilta!”



Erbeste debekatua



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Tren geltoki bateko nasa, bi lagun eta besarkada bat. Besarkada hori izoztuta geratuko da hurrengoan elkartu arte. Ni etxera itzuliko naiz, bera hor geratuko da. Han geratuko da aske izanda ere injustiziak harrapatu nahi gaituelako sentimendu mingarria ere. Jesús Rodríguez (Santa Coloma de Gramenet, Herrialde Katalanak, 1974) kazetaria da, *Directa* komunikabide kooperatiboaren sortzaile eta bazkidea. Polizia eta justizia gehiegikerietan aditua da, eta bere egungo egoeraren zergatia ulertu nahi badugu, kontuan izan behar dugu aditua dela kasualitatea ez diren beste gauza askotan ere.

Jesús duela zenbait hilabetetik dago erbesteratuta Genevan (Suitza), Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaile Manuel García-Castelló Tsunami Democratic auzian inputatu ondoren. Voxen eta eskuin muturreko beste taldexka batzuen herri-akusazioen eskutik, epaileak Jesús eta beste hamaika pertsona seinalatu ditu plataforma horren indarkeriarik gabeko ekintzak koordinatzeko us-tezko arduradun gisa. Izan ere, 2019ko udazkenean, Tsunami Democratic mugimenduak protestak antolatu zituen, 2017ko urriaren 1eko erreferendumari lotuta lider sozial eta politikoei jarritako epaiaren aurka.

Terrorismo salaketak dira, ez gehiago ez gutxiago. Horregatik, eta ikusita kausa horrek berme falta nabarmena duela, eta botere judiziala auzia erabiltzen ari dela Amnistia Legea lehertzeko ariete modura, Jesúsek erbesteratzea erabaki

Nor da terrorista, bere herriaren erabakitzeko eskubidearen alde modu baketsuan borrokatzen dena, edo Gazan 35.000 pertsona baino gehiago hil ondoren Netanyahu harakina babesten duena?

zuen. Idazmahaia bere horretan geratu zen, baina erredakzioko aulkiak hutsik jarraitzen du. Ordutik, ikasi behar izan dugu Jesús en hutsunearekin bizitzen eta sortzen digun amorrua aurrera jarraitzeko indar bihurtzen. Ezin liteke bestela izan, zeren, hain zuzen, euren helburua baita gu derrotismoan eta blokeoan hondoratzea.

78ko erregimeneko bunkerrak dio "ihes egindakoak" direla Jesús eta gainerako erbesteratuak, baita haien aurretik Herrialde Katalanetatik, Euskal Herri-tik eta estatuko beste nazio batzuetatik joandakoak ere. Ez dute onartzen ber-raiek direla ihes fisikora behartu dituztenak, aurrez aurre ezingo luketelako Jesús eta besteen argudiorik gairiditu ezta euren duintasunari aurre egin ere. Hain dira koldarrak, ezen Kataluniako azken hauteskunde-kanpainan hauteskunde-batzordeak debekatu egin bai-

tzien komunikabide publikoei, pertsona horiei askatasuna babesteko utzi dieten irtenbide bakarrari *erbesteratu* eta *erbeste* hitzekin erreferentzia egitea.

Tsunami Democratic-en aurkako kausa bultzatzen duen ultraeskuinari ondo-rengoek ematen diote oihartzuna: magistratu inkisidoreek, komunikatzaile gezurtiek eta trantsizioaren "konkordia-espírituaren" gainerako buruzagiek. Es-kuin mutur horrek gorroto diskurtsoak zabaltzen ditu, euren estatu homogeneo eta autoritarioaren ikuskeran tokirik ez duten gutxiengo sozialak izutzeko. Nire galdera zera da, nor da terrorista, bere herriaren erabakitzeko eskubidearen alde modu baketsuan borrokatzen dena, edo Gazan 35.000 pertsona baino gehi-ago hil ondoren Netanyahu harakina ba-besten duena?

Errugabetasunaren amaiera iritsi da, eta gaur jabetu nahi izan duenak bada-ki joko honen arauak tranpaz eraikita daudela; edonola ere, argi izan behar dute ez dugula partida utziko. Orain, hilerio milaka euro behar dira Jesús en erbestealdiari eusteko eta elkartasuna eskatzen dizuegu hori lortzeko. Hala ere, bada zerbait garrantzitsuagoa: mundu guztiari azaldu behar diozue Espainiako Erresuman, 2024an, badi-rela pertsona zintzoak etxea utzi behar dutenak, beren idealen alde borrokatzeagatik. Jesús en aldeko kanpainaren lema dioen bezala (www.nosaltrespertu.cat): "Tu per nosaltres, nosaltres per tu" [Zuk guregatik, guk zuregatik]. Hemen ez du inork amo-re emango. ●

Trapezistak



NORA SALBOTX ALEGRIA
MAISTRA

"Frantzian frantsesa! Trapezistak!!". Gure ele barbaroak tarteko, mugaz bi aldeetara ere, izan gintezke, berdin, emazte bizarduna ala gasolina hurrupa batzuen alde ahotik garrak botatzen dituen su-irenslea, laban jaurtitzailaren giza-itua, sarerik gabeko funanbulista, zazpi pilotadun malabarista, eta, zergatik ez, mundua den zirkuaren lur puxketa honetan, demagun Bizkarsoron, pailazo, eta separatista.

Separatistatzat izanzen ote zituzten Uztarrozeko eskolako neskatoak, neketan ikasten zutenak espainolez leitzen eta eskribitzen? Izan ere, maistra elebidunari euskaraz egin zezan galdegiten zioten Frantziako Errepublikaren minus 14. urtean, *de France et de Navarre*-ko Luis XVI.aren burua oraino ttennte zelarrik. 80 urte geroago ere teman ziren Erronkariko agintariak, Iruñera igorritako eskutitzean ageri denez: nesken eskolarako maistra euskalduna behar zutela eta ez zezatela bertze gisakorik igorri harat, faborez. Oihartzunen bat eginen dizu, irakurle, hezkuntzako probintzia-batzordearen erantzunak: delako lanpostu horretarako, lege, arautegi eta agindu orokorrek ez zutela euskarazko hizkuntza eskakizuna exijitzen ahal, fini.

XIX. mendeko hasmenta horretan, Badoztainen, kontent zen apezka. Izan ere, dozena eta erdi urteren bueltan, maisu erdaldun porrokatu batek, ja-



PAULA ESTÉVEZ

kitera zein gisako arte eta zigor erabilita, erdietsia baitzuen herriko karriketan ordura arte nagusi zen euskara bezainbertze gaztelania aditu zedin. Ibai Atutxak aski ongi azalduta utzi digun diferentzien produkzioaren kontu horrengatik izanzen zen akaso, edota oligarka, burges eta eliz jendeen euskararen irudi basa eta primitiboaren garaiko besarkatzea tarteko. Betiere, bere parte egiteko nahikerian izanzen zen hango erretorea ere, segur.

Eta, Atutxak zabaldutako barbarizazioen tesiaren xendrari segika, XX. mendea aitzinerat poliki joana zelarrik, gogoratu nahiko ez nukeen, eta aldi berean edozein izan zitekeen, herri bateko eskolako umiliazioen kapitulua hemen. Maisu zuri eta zibilizatu bat hantxe, diferentzia emantzipatzailerako potentziala duen guztia zafratzen, izan hizkuntza, klasea, arraza edota landatartasuna. Iru-dikatu, beraz, eskola frankista bat. Imajinatu ikasmahai saldo bat lerro-lerro eta

tranpaldotik gorroto estatal-inperiala kaligrafia ederrez ematen gizona: batek duela "adimen gibelamendu nabarmena" gaztelania apenas konprenitzen duelako. Hori dela "uzkurra eta lotsatia bordaria izatearen ondorioz". Hau "kaseroegia eta adimen eta irudimenez eskasa", "zikina" hangoa, "zatar jantzia" bertze hura. Gehitu orain horri guztiari ijitoa ere bazarela eta leitu, horra: "Alferra, interesik batere ez duena, hartaz kezkatzen ez diren guraso axolagabeak dituen. Askeegia".

Lehenengo batean *Bizkarsoro* ikustetik heldu ginen aspaldiko laguna dudana M. eta biok. Bizkarsorotik Bizkarsorora autoan joaki ginen, etxera bueltan. Emanaldian zen Josu Martinezen hitzek eragindako inarrosaldia gorputzean hala moduz kokatu nahian nindoan: "Desobiratu beharko dugu euskararen errepresioa, Memoriaren Legean frankismoarenarekin egin den gisa berean". Hartan bota zuen M.-k:

–Zernahi aldiz eskribitu zuen gure amak eskolan *no hablaré más en vasco*. Aldiro zigortzen omen zuten! Orain penatuta dabil kaier horiek gorde ez iza-naz. Lastima!

Eta orduantxe jakin nuen bere ama ere hala ibilia zela. Desobiratze bat, hara.

Gure ele barbaroak tarteko, mugaz bi aldeetara ere, izan gintezke, berdin, zartailuz bezatutako lehoia, bala-jendea, ganibet-irenslea, eta, zergatik ez, ilusionista, mago, eta separatista. ●

Euskaraz jaio



ANE LABAKA MAYOZ
BERTSOLARIA

Carmen Junyent hizkuntzalaria izan zen katalanez hil ahal izatea bere azken hatseraino aldarrikatu zuena. Hil hurren zela, osasun-langileekin izandako bizipenak idatzi, eta bera hil ondoren argitara zitzatela eskatu zuen. Hizkuntza pertsona batek beste batekiko duen trataeraren parte dela azpimarratu nahi izan zuen horrela.

Junyenten testigantzen artean, bada bat erizain batekin gertatutakoak biltzen dituena. Beste batzuek ez bezala, erizain horrek ez omen zuen eragozpenik gaixoa katalanez zuzentzen zitzaiotzen. Behin, ordea, krisi betean, garrasi egin zion berari espainolez hitz egin ziezaiotzen. Junyentek propio aipatzen du une larri batean gertatu zela, baina oihu horiek katalanez hitz egiteagatik bizitzan pairatu izan zituen umiliazio guztiak berriro biziarazi zizkiotela kontatzen du segidan. Hain zuzen, horixe litzateke saihestu beharrekoa: une hain delikatu batean batere lagungarriak ez diren oroitzapen negatiboak pilatzea.

Ondo gogoan du aitona-amonek nola nabarmentzen zuten tartean-tartean mediku euskalduna tokatu zitzaiela. Tokatu, bai, Gabonetako loteria nola. Kontua ez baita mahaitxo batean “Hemen euskaraz” dioen kartela jartzea bezain sinplea. Ez eta erditze-planean

euskaraz artatua izan nahi zenukeela x batekin markatzea bezain erraza.

Orain urtebete gertatu zen. Nahita hautatu zuen eskualde mailako ospitale txikiago bat, berez zegokiona handiagoa baitzen puskaz eta, ondorioz, munstroagoa eta, ondorioz, erdaldunagoa irudikatzen baitzuen berak. Erditzeak, baina, apenas izan zuen aurretiaz irudikatu zuenetik ezer. Oraindik ez zaizkio zauriak orbaindu. Oraindik ez du hitzik hogeita hamar orduren ostean ginekologoa erditze-gelara sartu zenean sentitu zuena ahoskatzeko. *Este parto lo voy a dirigir yo*. Badaki hizkuntza aldatzearekin bat hitz egiteko modua aldatu zela, kolpetik. Eta, posible balitz, nahiago luke hortik aurrerakoa ez gogoratu.

Ordutik, besteen hitzen bila dihardu. Estitxu Fernandezek *Sortze berri bat* liburuan Nahia Alkortak kontatutakoak hein berean zaizkio harramazka eta laztan. Alkortaren arabera, hizkuntza-eskubideek ere badute bere karga indarkeria obstetrikokoan eta gaztelania botere-tresna gisa erabiltzen da. Autoritatea aipatzen du Alkortak, eta Guardia Zibila. Hitz gehiagoren faltan, hala kontatu lezake aurrerantzean, akaso; hanka zabalik zegoela, Guardia Zibila sartu zitzaiola erditze-gelan. ●

Gerraz



LEIRE NARBAIZA
IRAKASLEA

“Si vis pacem, para bellum” kantatzen genuen laurogeiko hamarkadan orduko gazte euskaldunok. Bakea nahi baduzu, prestatu gerrarako, oihukatzen genuen latinez, ulertu barik oso ondo esaldiaren esanahia.

Sasoi hartan, euskal gatazka gori-gori zegoen, eta munduak Gerra Hotzaren azken urteak bizi zituen. Arma nuklearraren gaineko berriak etengabeak ziren komunikabideetan: neutroi bonba, misilen kontrako ezkutua, botoi gorria... eguneroko ogia.

Bigarren Mundu Gerraren osteko bake aro nahiko luzea. Ustezko bakea

zen, oster, esan beharra dago, gudurako prestatzea etengabea izan zelako.

Ostean, misil nuklearren suntsitzeko garaia etorri zen, eta bazirudien eskala handiko gudaren mamua uxatuko zela.

Baina Gerraren Jaunek, globalki ez bazen ere, ez zuten euren lana abandonatu, eta mamu zahar horiek hauspotzen jardun dute ordutik, gerla negozioa dutelako. Gerra hotsak zabaldua, beldurra eragiten dute, gizartean perlesia sortzeko, eta horrela helburua bete: gu kanoi bazka bihurtu, *business*-ak aurrera egin dezan.

Si vis pacem, para bellum egia izan ez dadin, paralisia astindu beharko dugu gainetik. ●

Nondik gatoz eta nora goaz?!



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Egin gintuztenen eta geure boron-datearen kontra eraiki nahi izan zigutenen oinarria berriro ere indar berritzen ari ote den nago.

Eskolako Kontseiluaren izenean honako baldintza hauek jartzen zitzaizkien, gerraostean, gure herrietara maistra lanera zetozenei, derrigorrean sinatu eta zorrotz bete behar zuten agindu zerrenda hau, lanpostuari eutsi nahi bazioten. Barka itzulpena trakets xamarra bada, neurea baita! Honela dio:

Ez ibili gizonezkoen konpainian; ez ibili hiri erdiko izozki saltokien inguruan; etxean izan arratsaldeko 20:00etatik goizeko 06:00ak bitartean; ez edan garagardorik, ardorik edo whiskirik; ez erre zigarrorik; ez ibili autoan gizonezkoekin, norbere neba edo aita ez bada; ez tindatu ilea; ez jantzi arropa distiratsurik; azpikogona pare bat erabili, gutxienez; ez jantzi orkatila baino bost zentimetro motzago geratzen den soinekorik; eskolako gela egunero txukundu, garbitu eta 07:00etan sua piztu 08:00etan ikasleak datozenenerako goxatu dadin; ez aurpegi apaingarri gisara hauts eta ukendurik erabili, ezta ezpainak koloreztatu ere...

Maistrek zigarroak
erretzea espresuki
debekatua zuten,
baina puruak agian
erre zitzaketen ala?
Montekristoak,
esaterako (izen
horrekin, gainera, zer
kalte egingo du bada?)

Eta neskek ez omen zuten soldadutzarik... Maistrek hori bizi behar bazuten irakaskuntzan (hezkuntzan?) eskarmen-tua hartzeko aitzakiaz, pentsa 5-14 urte arteko neskatoek zertzuk pasa beharko zituzten! Gainera, zenbait herritan (Azkoitia inguruan, esaterako) etxez etxe txandan izaten zuten bizilekua maistrek (baita Arantzazuko amabirjinak eta santuek ere, bakoitza bere kaxan, ongi zaindurik), eta familiako ohituretan txertatu edo antzerako zerbait egin beharko zu-

ten, eguneroko eta ohiko hizkuntza ere albora utzirik nola batzuek hala besteek.

Haurrak hezteko eginahala ikasten jardun eta lekaime bizitzara kondatuta, jantziak luze eta mihia motz?! Euskara ezin jakin (gure herrira behintzat Valladolidetik, Palentziatik... etorri ohi ziren) eta huraxe besterik ez zekiten haurrekin elkar-bizi beharra. Giroa estufako beroak soilik goxa zezakeen nonbait!

Baldintzen zerrenda (ahal izanez gero) umorez hartzeko hobe. Egia da, etxean norekin egon ez du zehazten. Ez ibili gizonezkoen konpainian (eta diot, zaindu bereziki gona edo sotana janzten zutenak, jakin ditugunak jakinda). Hiri erdiko izozki saltokien inguruan ezin ibili... besteetan? Ahal zen guztia barrura?! Sagardoa edan zezaketen! Patarra ere agian bai... Zigarroak erretzea espresuki debekatua zuten, baina puruak agian erre zitzaketen ala? Montekristoak, esaterako (izen horrekin, gainera, zer kalte egingo du bada?). Ez ibili autoan... hori ez zegoen jarri beharrik gurean behintzat! Baina, egia da, zenbat emakumezkoek zuen (ez autoa) gidabaimena duela laurogei urte? ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

EHZ[★] 

HEMENDIKI!

EKAINAK 28.29.30 JUIN
ARBERATZE-ZILHEKOA



Erraustegiak lehen pozoiak erakutsi baldin baditu... **ZER EGIN?**

Gipuzkoako erraustegiaren emisioen bost urteko jarraipenaren emaitzak aurkeztu ditu ToxicoWatch fundazioak. Emaiza kezkarriak, bizidunei eta zehazki gizakiei osasun kalte larriak eragin diezazkieketen kutsatzaileez ari garelako. Emaiza nabarmenak, erraustegi berria eta ustez puntako teknologiaz eraikitakoa izanik deigarria suertatzen delako jada pilatzen dituela aspaldiko erraustegien emisio mailak.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Abel Arkenbout toxikologoa eta Kirsten Bouman biologoa, Herbehereetan industriaren emisioen jarraipenean berezitutako ToxicoWatch fundazioko kideak, maiatzaren 22an ia zuzenean zetozen Eslovakiatik, Turna nad Bodvou herrian aurkeztetik han hondakinak erretzen dituen zementu fabrikaren inguruko kutsaduraren emaitzak. Giro beroa, antza, Turna nad Bodvoun (3.200 biztanle, Eslovakiako bigarren hiri handiena den Kosice ondoan), jen-

dearen urte luzeko kexuak batetik, faktoriako ugazabaren eta goi koadroen presioak bestetik, ikerlarien hitzaldia poliziak zainduta liskarren beldurrez... eta -hara!- bertako telebista publikoak albiste emankizun nagusian hiru minutuko erreportajea aipatua, ikerlarien elkarrizketa eta guzti; Internetez ikusgai dago oraindik.

Lehen begiratu batean, ez dute zorte bera eduki zientzialariok Gipuzkoara iritsitakoan, hemengo hedabide publiko zein pribatuek beti dituzte gai inportanteagoak albistegien agendan, zer esanik

ez probintziako egunkari salduenak. Horretan, zorioneko daude euskarazko hedabideak irakurtzen dituzten herri-tarrak: *Berria*-k, *ARGIA*-k eta *Noaia*-k eskainitako kronikei esker ezagutu ahal izan dute ToxicoWatch fundazioak bost urteko jarraipen zehatzaren ostean ondorioztatu duela Zubietako erraustegi berriak inguruko aire, lurzoru eta bizidunetan zabalduetako kutsagarriak jada nabarmenak direla.

Isiltasunak isiltasun, zientzialarien bisitari gertuagotik erreparatuz gero, ohar gintezke Gipuzkoako panoraman





X.M.

Bouman eta Arkenbout goroldio laginak biltzen Zubietako erraustegitik hurbil joan den maiatzean.

aldaketa funtsezko bat ezarri duela ToxicoWatchek Hernanin, Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Usurbilen aurkeztutako analisiekin: erakutsi dute jada lehendik kutsatuta zegoen inguru txit hiritartu honetan pozoien kopuru eta mailak handitu egin direla Zubietan hondakinak bi labe handitan erretzen hasi zirenetik. Argazki itsusi horrek mugitzera eta lanera behartzen ditu kutsaduraren iturriarekin zerikusirik duten guztiak. Erraustegiaren inguruko herri-tarrek motiboak dauzkate lehenaz gain kezkatzeko. Labeen kudeatzaileek gal-

Europako zortzi errauste plantaren emisioen jarraipena ari da egiten ToxicoWatch fundazioa, tartean, Zubietakoa

dera deserosoak dauzkate orain mahai gainean. Eta azken finean azpiegitura publikoa den horren arduradun poli-

tikoei arazoei konponbidea bilatu eta ezartzeko presa sartzen die. Eman daitezkeen zenbait urrats ere aurreratu dizkie ToxicoWatchek... baina horretan barnatu aurretik, komeni da laburbiltzea zer aurkitu duten zientzialariok.

ERRAUSTEGIA PIZTU AURRETIK HASITA

2018an izan zen lehenbizikoz Toxico-Watch Euskal Herrian, Errausketaren Aurkako Mugimenduak (EAM) gonbidatuta, errauste planten emisioen zertzeladak ematen eta azaltzen horien

jarraipena nola egin daitekeen: ikertuz instalazio horren inguruan zabaldua-ko toxikoak beren gain biltzen dituzten lurzoru, erreketako ur, goroldio, zenbait landareren (ote, gorosti, pinu...) hosto eta autokontsumorako oilategi txikietako arrautzetan.

Ikerlanari garrantzitsu iritzita, hura finantzatzeko dirua herritarren artean bildu zen *crowdfunding* bidez eta gaierekin sentibera diren zenbait udalek ere onartu zuten parte hartzea. Lehen lagin bilketa 2019an egin zen, artean erraustegia martxan jarri aurretik, “zero puntua” edo abiatzeko unekoa markatzeko. Lehen ikerlan hartako emaitzek erakutsi zuten erraustegiaren inguruko 5 kilometroen barruan jada toxikoen arrasto nabarmenak agertzen zirela –erraz ulertzekoa kontutan hartuta Usurbil, Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Hernani eta Donostiaren zati bat hartzen dituen eremuan zenbat industria, errepide eta bestelako kutsadura iturri biltzen den, hondakinak erretzen dituen Añorgako porlan fabrika barne-. Ondorioz, ikerlariak erabaki zuten zentratzea nagusiki 1,5 kilometroko eremu estuagoan, “eraztun berdea” izendatu duten horretan aurkitu baitzituzten artean kutsatu gabeko goroldio, ur, zuhaitz-orri eta abar.

Geroztik ToxicoWatchek bost urtez segidan egin die jarraipena erraustegiaren emisioen arrastoei eta urtero bildu ditu –erraustegiaren inguruko beti gune beretan eta zorrotz dokumentatuta– aipatu lurzoru, erreketako ur, goroldio, zenbait landareren (ote, gorosti, pinu...) hosto eta autokontsumorako oilategi txikietako arrautzak.

Laginak laborategi zertifikatueta-
ra bidalita, horiek analizatzen dituzte ikusteko ea baduten kutsatzaileon arrastorik: metal astunak (beruna, kobrea, zinka, kromoa, merkurioa...), dioxinak, PCBak eta PFASak. Azpimarraztekoa da eguneroko bizitzan eten barik –*teflon* delakoa daukaten zartaginetan bezala hainbeste kosmetiko, ontzi eta abarretan– darabiltzagun toxiko larri hauen kasua. Orain dela oso gutxi arte Europako legedian arautu gabe egon diren PFASak, gaur hedabide handiek “kutsagarri eternoak” deituta hainbeste aipatzen dituztenak, jada bigarren ikerketan hartu zituen kontuan ToxicoWatchek, etorkizuneko informazio baliagarria delakoan: gure arteko zenbait politikari ezjakinek mespretxatu duen fundazio hori



ToxicoWatcheko ikerlariak Eslovakiako Turna nad Bodvou herrian, hango erraustegiaren emisioen ikerlana aurkezten.

Pozioen errudun klasiko bat deitzen da ‘OTNOC’, ohikoak ez diren baldintzetan funtzionatzea: labeak itzali eta berriro piztean erraustegiari baimentzen zaio keak filtrorik gabe ‘bypass’ eginda zuzenean atmosferara jaurtitzea

Basilea-Stockholm-go Konbentzioaren lan talde teknikoetan ere ari baita, Gernevan.

JENDEA IKARATU EZ, ARAZOARI KONPONBIDEA JARRI

Uneotan zortzi errauste plantaren emisioen jarraipena ari da egiten ToxicoWatch European zehar. 2013an ekin zion Herbehereetan Harlingen hiriak daukan erraustegiarekin, 2019tik ari da Gipuzkoako (Zubieta) eta Belgikako Beringen hiriko erraustegiekin, 2021etik Parisek (Ivry-Paris III) daukan Europako handienarekin eta geroztik Zero Waste Europe gobernu kanpoko erakundeak eskatuta Madrilgo (Valdemingomez), Txekiako (Pilsen), Lituaniako (Kaunas) eta Eslovakiakoekin (Turna nad Bodvou).

ToxicoWatchek bere ikerketetan garrantzi handia ematen dio erraustegi inguruko herritarrek autokontsumorako dauzkaten oilategietako arrautzen analisiari, librea hazitako oiloek beren gantzetan –eta ondorioz, erruten dituzten arrautzetan– pilatzen dituztelako inguruko belar, landare, goroldio eta xomorroek aurretik bildutako toxikoak.

Hasieratik hamabost oilategitako arrautzak biomonitorizatu dituzte hementxo erraustegi inguruan, udalerriz Zubietan, Lasarte-Oria, Usurbil, Andoain, Hernani eta Urnieta diren guneetan. Erraustegia martxan jartzerako jada pozoien arrastoak ageri zirenez arrautzetan, adierazten zutenak eremu horiek lehendik ere kutsatuta zeudela eta erraustegiaz gain bestelako kutsadura iturriak bazirela, zentratu dira labeetatik gertuenekoetan. Beren agerraldietan Bouman eta Arkenboutek nabarmendu dute 2019tik 2023a bitartean analizatutako oilategi guztietan igo direla bai dioxinak, bai PCBak eta bai PFASak. Guztietan handitu dira pozoikopuruak eta oilategiren batean gainera ikerlariok inoiz neurtu duten kopururik handienara iritsi dira.

“Ez da gure asmoa inor beldurtzea”, entzun zaie Bouman eta Arkenboutei behin eta berriro arrautzen datu eta grafikoei entzuleen artean eragiten duten zirraren aurrean. “Politikariek eta erraustegien kudeatzaileek konpondu beharra daukate kutsadura bere iturrian, konponbidea ez da inolaz ere horrelako arazo baten erantzukizuna berriro ere herritarren bizkar uztea”.

Arrautzak baldin badira erraustegi batek aurretik iragarritako garbitasun helburuak betetzen ez dituela ohar-tarazten diguten “alerta goiztiarrak”, zantzu horiek berretsi dituzte instalazioen inguruan bildutako lurzoru, landare, goroldio eta uren analisiak. Denetan ikusi dira agertzen eta ugaritzen dioxinak eta PFASak, ur eta erreka sedimentuetan metal astunak ugaritu diren bezala. Baina bereziki deigarria egiten da goroldioekin gertatzen ari dena: erraustegiaren inguruko goroldioetan 2019an -hondakinak erretzen hasi aurretik- toxikorik ez zen azaldu laginetan, erraustegia abiarazi bezain laster 2020an agertzen hasi ziren eta 2023ko laginketan bildutako goroldio lagin guztiek zeuzkaten pozo arrasto oso nabarmenak.

BI URTEAN 240 ‘OTNOC’ ESAN DUZU?

Zer adierazten dute Gipuzkoako erraustegiaren inguruan hautemandako kutsaduren datuek? Hasteko, jakin behar da erraustegi batek emititzen dituen milaka toxiko ezberdinen artean gutxi

“Politikariek eta erraustegiaren kudeatzaileek konpondu beharra daukate kutsadura bere iturrian, konponbidea ez da inolaz ere horrelako arazo baten erantzukizuna berriro ere herritarren bizkar uztea”

Abel Arkenbout

batzuk direla legeak arautuak, erregulazioetan aipatu gabe geratzen baitira dioxina eta PCB asko, PFAS guztiak eta abar luzea. Hori ahaztu barik, arrautza, landare, ur eta goroldioetan toxikoak nabarmen ageri baldin badira, iturri nagusiak zein izan daitezkeen jakitea ez da


misterioa, munduko beste erraustegietan gertatuak ezagututa.

Pozoien errudun klasiko bat -agintariek ezikusia eginda pasatzen dutena- deitzen da OTNOC, ohikoak ez diren baldintzetan funtzionatzea (*Other Than Normal Operating Conditions*). Laburtzeko: erraustegiaren ugazabak kontrolatu behar ditu toxikoen emisioak labeak “normal” funtzionatzen ari direnean, baina arauak orain arte barkatu diote egoera ez-ohikoetan egindako edozer; funtsean, matxura batengatik edo dena delakoagatik labeak itzali eta berriro pizteko aldietan, hauetan baimentzen zaio baita hondakin erreenean kea filtrorik gabe *bypass* eginda zuzenean atmosferara jaurtitzea ere. Zubietakoaren kasuan, Europako araudiek gomendatzen dutena baino askoz gehiagotan egin ditu itzalipiztu aldiok, bere lehen bi urteetan 240 aldiz, Gorka Bueno unibertsitate irakasle eta Ekopoleko kideak azaldua duenez. Gogoratu OTNOC, kontrol eta filtrorik gabeko kutsatze kolpeak.

Bigarrena, OTNOC bezain erruduna baina erraustegiaren ugazabek bezala teknologietan begi-itsuan sinesten duten



ToxicoWatcheko Bouman eta Arkenbout Gipuzkoako Batzar Nagusien sarreran maiatzaren 27an, beren lekukotasuna ematera joanik Gipuzkoako ordezkari politikoei.



ingeniariek aitortu ezina, da hondakinek erretzean gutxienez bi segundoz iraun behar dutela 850°C-tan. Eta hori une oro lortzea oso nekeza dela, erraustegi guztietako kantua da.

NOLA BERMATU 850 °C-KO TEMPERATURA?

Aspaldi kontatu zuen ARGIA Alfonso del Val adituak nola epailearen aginduz bi guardia zibilekin Valdemingomezkoa ikuskatzera joanda labearen atea ireki eta beren begien aurrean aurkitu zuten... paperezko liburukote bat erdizka erreta: 850 °C haietatik urrun geratua zen seinale. Berrikitan antzeko konklusiora iritsi dira guardia zibilak –antza, ertzainak baino iaioagoak erraustegien kutsaduren arrastoak jarraitzen– Bartzelonako (Sant Adrià de Besòs) erraustegian: han zuzendaritzak emandako datuak fisikoki ezinezkoak zirela eta hondakinak behar baino temperatura epelagoan erretzen dituztela idatzi diote txostenean epaileari.

Ez da erraza, antza, 850 °C-tara berme osoz iristea labe handi batean bildutako zabor nahasi guztiak, gainera multzoa egunero hondakin mota ezberdinez osatuta dagoenean. Belgikako Beringeneko erraustegian ToxicWatchek erakutsi zuenez, temperatura neurtzeko sistema ez zen egokia: Bruselako gobernuak onartu zuen benetako temperatura erreala zertifikatu zezala Alemanian neurketetan berezitutako TÜV konpainiak, eta honek erakutsi zuen erraustegiak deklaraturakoak baino ia 100 °C epelagoak zirela errealak. Horrek bakarrik, dioxosozko OTNOC-ik gabe ere, azal ditzake dioxina eta beste toxiko asko inguruan zabaltzea, teoriarik konbustioak deseginak beharko zutenak, baina errealitatean arriskutsuak diren pozoiak direnak.

Ohar berezia egin dute PFASei buruz ikerlariak. Berrikitan Europako Legebiltzarrak arautu dituen “kutsagarri eterno” direlakoek mundu osoan erraustegiei arazo berri bat ekarri die. Dioxinak baldin badira hondakinak erretzean ‘nahi gabe’ sortzen diren substantziak, PFASak dira kimikariek azken hamarkadetan ‘nahita’ sortutako substantzia berriak kontsumogai pila batean barreiatuta daudenak, hasi zartaginetan jakiak eranstea eragozten duen *teflon* famatutik eta segi klase guz-

TCDD motako dioxinarik ez zen agertu Zubietako erraustegi ondoko goroldioetan 2019an, labeak piztu aurretik; geroztik, gero eta arrasto gehiago ageri dira horietan.



Markel Olano diputatu nagusia eta Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatu eta GHK-ko lehendakaria, Zubietako erraustegia eraikitzeko lanak –Bilduk bere agintaldian eten ostean- berriro hasi zituzten egunean.

tietako ontzi, janzki, kosmetiko eta es-talkien zerrenda amaigabea. Darama-tzaten PFASak desegitekotan, gai horiek denak 1.100 °C-ko beroan erre beharko lirateke. Labera iritsitako zabor guztiak 850 °C-etaraino eramatea bermatu ezin duten erraustegiak nola iritsiko dira ten-peratura horretara? Lortzekotan ere, zein kosterekin? Industriad, unibertsit-atez eta ingeniari bezalako Euskal He-rri honetan, egunero material berrien sorrerak iragartzen dizkiguten milaka profesionalok okupatzen hasiko ote dira sortu eta bazter guztietara barreiatu di-tuzten kutsatzaile eternoen ondorioez?

ELKARLANA ESKAINI ETA INFORMAZIOEN GARDENTASUNA ESKATU

Kirsten Bouman eta Abel Arkenboutek, kutsaduraren argazki kezkarria era-kustez gain, aurrera begirako urrats posibleen pistak ere eskaini dituzte be-ren agerraldietan. Hasteko, errauste-giaren inguruetan agertu diren pozoien eta labeen kudeatzaileek hark sortutako emisioen artean dagoen leizea informa-zioz osatu beharra dago.

Alde batetik, labeetan hondakinak errealtatean zein tenperaturatan erre-

Erraustegiaren inguruko goroldioetan ez zen toxikorik aurkitu hondakinak erretzen hasi aurretik, 2023ko lagin guztietan pozoiz arrasto oso nabarmenak atera dira

tzen diren zehazki jakin behar da. Gauza bat dela labearen puntu jakin batean ko-katutako termometroak markatzen due-na eta oso bestelakoa hondakin masa handi bezain anitz eta nahasi horretan guztian 850 °C-ak alkantatztea.

Bestetik, erraustegiak tximinietatik aireratzen dituen toxikoen neurketa erre-alak bermatzea. Oraindik ez dago, adibidez, dioxinen emisioak jarraian neurtzeko teknologiarik, baina bada-go eten gabe emisioen laginketak egin eta denbora tarte batekin horien emai-tzen bidez emisio erre-alak zehaztasun handiagoz lortzeko modua. Zubietako erraustegiak berak instalatuta omen

dauka sektorean AMESA izenez ezaguna den laginketa tresna hori...baina falta da hori eten barik martxan eta kontrol-pean edukitzea, eta tximinietan bat bai-no gehiago edukitzea. Horrela posible litzateke, nahiz eta ordu edo egun ba-tzuetako atzerapenez, zehatzago jakitea une bakoitzean tximinietatik zer atera den atmosferara.

ToxicoWatcheko ikerlariak Gipuzkoa-ko Batzar Nagusietan azaldu zuten prest daudela elkarlanean aritzeko alde guz-tiekin, Herbehereetan edo Belgikan egin duten bezala, parte hartuz gobernuak antolatutako lan-taldeetan. Bide batez esanda, ez zuten meritu makala izan, bileraren aurretik hedabideetan bezala Batzar Nagusietan ere mespretxua egin zieten agintarien aitzinean.

Horrek guztiak, ordea, ikerketa zo-rrotzak eta talde-laneko balorazio bu-rutsuak, badauka aurretiazko baldintza ezinbesteko bat: agente publikoak ber-matu beharra dauka informazioen eta datuen gardentasuna. Gipuzkoako ka-suan, inor ausartuko ote da lantalde txu-kun bat antolatu eta Ekondakin konpai-niari eskatzera labeen eta hondakinek egiten duten bide osoaren erregistroak ikerlarien esku jartzera? ●

'JUSTIZIA DORIBELENTZAT'

Indarkeria matxista intersekzionalaren kasu paradigmaticoa

Gizon bilbotar zuri bat epaitua izan da bere bikotekidea (emakume migratua) bizirik erre izana leporatuta. Feminizidio frustratu horrek agerian uzten du biktimek bizi duten babesgabetasuna, indarkeria matxista arrazakeriarekin uztartzen denean.

 JUNE FERNANDEZ  ECUADOR ETXEA

2022ko apirilaren 30ean, Bilboko Atxuri auzoko lonja batek su hartu zuen emakume bat eta haren 2 urteko alaba barruan zeudela. Doribel 54 egunez egon zen ospitaleratuta Gurutzetako Ospitaleko Zainketa Intentsiboetako Unitatean (ZIU). Erredura sakonak jasan zituen gorputzaren %18an, aurpegia barne. Aitor B. S. bikotekidearen bisitak izan zituen, Doribelen ahizpa batek (A. deituko diogu) genero-indarkeria kasua zela salatu zuen arte; ospitale-protokoloa aktibatu zuten orduan, eta inputatua behin-behineko espetxealdian egon da geroztik.

Maiatzaren 22tik 27ra bitartean Bilbon egindako epaiketan Fiskaltzak eta beste bost akusazioek (partikularra, Bilboko Udala, Clara Campoamor elkar-
tea, eraikinaren jabeen erkidegoa eta

**Erredurengatik
eta ebakuntza
kirurgikoengatik
aurpegia desitxuratzeak
lan-merkatura
itzultzeko aukerak
mugatu dizkio**

lonjaren jabea) gehienezko zigorra eskatu dute gizonarentzat: 29 urte arteko espetxe-zigorra hilketa saiakeragatik

eta lokalean 90.000 eurotik gorako kalteak eragiteagatik. Txosten forentseak baztertu ditu istripuaren zein suizidioaren hipotesiak. Azken hori defendatu du akusatuak, alegia, Doribelek piztu zuela sutea bere buruaz beste egiteko asmoarekin. Forentseek frogatutzat eman dute lesioak bat datozela hilketa saiakera batekin: erasotzaileak substantzia bizkorgarri batekin busti zuen biktima ohean etzanda zegoela, eta su eman zion.

EH Feministak-Nika elkarteak (Nikaraguako etorkin eta errefuxiatuek osatutakoa) Doribel bere herrikidea lagundu du salatze- eta osatze-prozesuan, eta elkarretaratzea antolatu zuen maiatzaren 23an Bizkaiko Auzitegiaren sarreran egia, justizia eta erreparazioa eskatzeko. Norma Vazquezek,



Aktibista feministak Bilboko epaitegien aurrean Doribelentzako justizia eskatzen.

indarkeria matxistan espezializatutako Sortzen aholkularitzako zuzendaria, hartu zuen mikrofonoa: “Doribel fisikoki, psikologikoki eta emozionalki kaltetuta geratu da. Ezin izango du baldintza egokietan lan egin hona ekarri zuen migrazio-proiektua betetzeko”, azpimarratu zuen psikologo feministak. Erasoak, besteak beste, min handia, depresioa eta trauma osteko estresaren nahasmendua utzi dizkio. Erreduren-gatik eta ebakuntza kirurgikoengatik

aurpegia desitxuratzeak, kalte psikologikoaz gain, lan-merkatura itzultzeko aukerak mugatu dizkio.

ESTEREOTIPO MISOGINO ETA ARRAZISTEK BLAITUTAKO DEFENSA

Norma Vazquezek kontzentrazioan azpimarratu zuenez, feminizidio-saiakera ez zen gertaera isolatua izan, indarkeria-espinal baten klimaxa baizik: “Jakin badakigu gizon horrek Doribelen mu-

turreko zaurgarritasuna aprobetxatu zuela eta beste emakume migratuen aurkako erasoan aurrekariak dituela”. EH Feministak-Nikak komunikatuan zehaztu zuenez, akusatuak biktima “manipulatzen, kontrolatzen eta mehatxatzen zuen sistematikoki” elkarrekin bizi izan ziren lau hilabeteetan. *El Correo* egunkariak argitaratu du akusazio partikularrak epailetan gaineratutakoa: Aitorrek Doribelen “txartelak, mugikorra eta sare sozialak bereganatu zituen; sexu-harremanak grabatu eta horiek zabaltzeko mehatxua egin zion, eta behar zuena baino medikazio gehiago ematen zion”.

Akusatuaren defentsa biktima gutxiestean oinarritu da, estereotipo misogino eta arrazistez betetako erretratu bat aurkeztuta

Alabaina, Doribel ez da biktima bakarra izan. EH Feministak-Nikaren arabera, bere beste ahizpa (N. deituko diogu) harrapatu zuen Aitorrek nahita kotxearekin. Kasu hori epailetaren zain dago. Silvia Zuniga aktibistak ekarri digu Doribelen testigantza: “Aitorrek konbentzitu zuen N.-ren lantokira elkarrekin joateko, N.-k zor zion diru bat erreklamatzera. Kamerarik eta lekukorik gabeko leku batean zain zeudela, esan zion: ‘Ikaratu egingo dugu’. Harrapaketak konplikazio larriak utzi zizkion N.-ri: hainbat aldiz operatu behar izan dute, eta bi urte daramatza errehabilitazioan”. Larrialdi zerbitzuek istripua izan balitz bezala artatu zuten, harik eta N. esnatu eta eraso salatu zuen arte.

Vazquezek gaineratu du Doribel N.-ren aurkako atentatu batean inplikatzeari zela Aitorren asmoa, ahizpen arteko harremana apurtzea xede, biktima bere afektu-saretik isolatzeko estrategia gisa. Doribel hain asaldatuta geratu zen bikotekidearen bortxazko erreakzioagatik, ezen hegazkin-txartelak erosi baitzituen alabarekin Nikara-

guara itzultzeko. Sarritan gertatzen den bezala, orduan gertatu zen feminizidio-saiakera, bidaia baino bost egun lehenago, biktimak alde egiteko borondatea erakutsi zuenean.

Akusatuaren defentsa biktima gutxiesten oinarritu da, estereotipo misogino eta arrazistez betetako erretratu bat aurkeztuta, bere bizitza sexualari buruzko aipamenak barne: “Emakume prostituta, drogazale, problematiko, gatazkatsu gisa aurkezten saiatu da Aitor. Esan du bere bekatu bakarra izan dela hainbeste min zuen emakume batekin maitemintzea”, azaldu zuen Vazquezek prentsurrekoan. Sortzen-eko zuzendariak azpimarratu zuen Doribelek pairatzen dituen ondorio fisiko eta psikologikoei “bere ohorearen aurkako erasoek eragiten dioten kalte izugarria” gehitu behar zaiela.

PROTOKOLOEK BABESGABE UZTEN DITUZTE BIKTIMA MIGRATUAK

Epaiketan testigantza eman zuten Aitor B.S.-ren bikotekide ohietako batzuk, akusazioak eskatuta, eta adierazi zuten haiek ere amaitu zutela harremana tratatu txarrak eta jazarpena jasan zituztelako. Aitorrek izan dituen azken lau lagun sentimentaletatik hiru emakume migratzaileak ziren. Vazquezek ohiko joera bat ikusten du datu horretan: “Gizon zuri matxistek bazterkeria egoeran dauden emakume migratuekin ligatzea”. Akusatuak politologo gisa aurkezten du bere burua, eta Telebilbaoko tertuliakidea izan da. Bertan, Alderdi Popularreko militante gisa agertzen zen.

Aktibistek salatu dutenez, indarkeria matxisten biktimen egoera larriagotu egiten da “genero-biolentzia arrazakeriarekin eta emakume migratzaile batek lurralde horretan bizi dituen errealitateekin uztartzen denean”. Doribel ZIUn zegoen bitartean, haren ahizpa A. bi aldiz saiatu zen Aitorren aurkako salaketa formalizatzen Zaballburuko ertzain-etxean. Poliziek uko egin zioten, zuzeneko biktima ez zela argudiatuta, nahiz eta genero-indarkeria ofizioz salatu daitekeen delitua izan. Zunigak “aurreiritzi misogino eta arrazistei” egotzi dio ertzainen jarrera, hots, “emakume migratuei ematen dieten sinesgarritasunik ezari”. Nikaraguako feministek komunikatuan ohartarazi dutenez, feminizidioaren biktima askok ez dute babesik jaso salaketa jartzen saiatu direnean.

Zunigak berak lagundu zion A.-ri



**“Indarkeria matxistaren
aurrean, gizatasuna
ukatzen digun erantzun
instituzionalei aurre
egin behar diegu
biktima eta aktibistok”**

Silvia Zuniga
Aktibista feminista

beste komisaria batera, Deustu auzokora, Sortzen-en gomendioz: “Kasuaren instruktoreak eta gainerako ertzainek oso bestelako lanketa egin zuten; age-

rikoa da indarkeria matxistari buruzko prestakuntza dutela. Bere adierazpen irmoak baliagarriak izan dira kasuari buelta emateko eta genero-indarkeriatzat jotzeko. Ondorioz, ikasi dut polizia-etxe guztiak ez direla seguruak”.

Nikaraguako feministek komunikatuan salatzen duten bigarren utzikeria instituzionala Doribelen alabaren zaintzari buruzkoa da: “Biktima bikarioa da, erasoak ikusi zuelako eta bere amagandik banandua izan delako. Baina ez zaio biktimaren aitortza eman, legez aurreikusten den bezala, eta ez dira aintzat hartu egoerak eragin dizkion kalte psikologikoak. Are gehiago, bere ongizate emozionala lehenetsi beharrean, familia-saretik banandu dute, zainketak bere gain hartzeko prest zegoen arren”, kritikatu dute komunikatuan.

Izan ere, larrialdietako udal-zerbitzuek Aitor haurrarekin geratzea galarazi bazuten ere, Bizkaiko Foru Al-



dundiak tutoretza hartu zuen, umearen amamak harrerako familia gisa onartua izatea lortu zuen arte. Ez zen erraza izan, berriro ere prekaritatea sartu baitzen jokoan: “Amamak harrera-etxea izateko baldintzak betetzen zituen

Doribelen ahizpa bi aldiz saiatu zen Aitorren aurkako salaketa formalizatzen Zabalburuko ertzain-etxean. Poliziek uko egin zioten

etxebizitza bat lortu behar izan zuen, baina ez zuen beharrezko baliabiderik, eta erakundeek ez zioten etxebizitzarik erraztu”, azaldu du Zunigak.

Salatutako hirugarren oztopoa da, hain zuzen ere, erakundeek ez dutela lagundu “interseksionalitatearekin zerkusi handia duten egiturazko arazoei aurre egiten: etxebizitza, errolda, lana eta osasun arretari lotutakoak”. Gurutzetako Ospitaletik genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako harrera-etxe batera igaro zen Doribel, baina senideei ez zaie inongo baliabiderik eskaini.

N-k, erasotzailea autoarekin harra-patzeagatik salatu duen ahizpak, ez du biktimak bikarioa izateagatik babesik jaso: “Abokatuari galdetu genion ea posible zen bere salaketa feminizidio saiakera kasu bakar bat bezala epaitzea, baina ezetz esan ziguten”, azaldu du Vazquezek. Bi urtez lan egiteko ezgaituta egon ondoren, bere egoera gero eta prekarioagoa da.

Gehiago dira Sortzenek eta Nikaraguako Feministak erakundeek biktimak bikario gisa aldarrikatu dituzten senideak: A. ahizpa zaintzeko migratu zen Bizkaira, eta ez zuen non bizi, ezta diru-sarrerarik ere. “Udalei laguntza eskatu diegu, arrazoi humanitarioengatik premiazko erroldatzea eman diezaioten larrialdiko dirulaguntzak eskatu ahal izateko, baina oztopoak jarri dizkigute eta irtenbiderik ez”. Ondorioz, ahizpen seme-alabak ere mantenu-iturririk gabe geratu dira Nikaraguan.

Vazquezek deitoratu du instituzioen inplikazio falta: “Lege autonomikoak ezartzen dituen betebeharrak urratu dituzte: ez dute erakundeen arteko bilerak bakar bat ere egin, ezta biktimak bikarioak laguntzeko neurriak hartu ere. Ate guztiak jo genituen batzorde berezi bat sortu zezaten. Kasuaren larritasuna onartu eta babesa adierazi zuten. Aitzitik, ‘bihar bertan deituko zaituztegu’ esan, eta deiaren zain jarraitzen dugu”. Irtenbide publikorik ezean, ekintzaileek *crowdfunding* bat antolatu zuten familiari gastuak ordaintzen laguntzeko. “Elkartasun feminista oso ondo dago, baina biktimek eskubideak dituzte. Sententzia Doribelen aldekoa bada ere, ez da justiziarik egingo instituzioek beren eginbeharrak betetzen dituzten arte”, ondorioztatu du Sortzeneko zuzendariak.

Epaiaren zain, Zunigak bere frustrazioa eta ezintasuna adierazi ditu: “Indarkeria matxistaren aurrean, bizitako gertaera mingarri eta bortitzez gain, gizatasuna ukatzen digun erantzun instituzionalei aurre egin behar diegu biktimak eta aktibistok. Gure gain uzten dute presio soziala egitearen ardura, gertatutakoa ahaztu ez dadin”. ●

LEKEITIOKO SOS MUGIMENDUA

“Gure osasuna ezin da erabaki politikoen menpe egon, zerbitzu duinak behar ditugu herrian”

Lekeition pediatria zerbitzua kolokan ikusi du herritar talde batek, ginekologia zerbitzuarekin gertatu den moduan, eta berandu baino lehen, osasun zerbitzu duinak izateko aldarria atera dute kalera. Sortu berria den Lekeitioko SOS mugimenduaren sustatzaile dira Marina Entziondo Txakartegi eta Patricia Ruiz de Gopegi Martinez, beraiekin hitz egin dugu osasun zerbitzuen gainbeheraz.

 ALEJANDRA GOIKOETXEA

Herrian pediatria, ginekologia eta obstetrizia eta larrialdi zerbitzuen murrizketaren ardurak elkartu zaituzte. Noiz ekin zenioten borrokari?

Marina Entziondo Txakartegi: Herrian zurrumurrua zegoen; orain arte izan dugun pediatria Bilbora lekualdatu ostean, Lekeition pediatria zerbitzu barik geratuko ginela. Guraso askok pediatriako kontsultan bertan izan dugu horren berri. Beldur eta kezka hori herrian bazegoen.

Patricia Ruiz de Gopegi Martinez: Zurrumurrua ezagutzen genuen, baina ez genekien hain berehalakoa izango zenik kontua. Edoskitze tailerrean guraso batek jo zuen lehenbizi abisua, “pediatria barik geldituko gara gaurtik biharrera”, eta horren aurrean mugitzeko beharra sentitu genuen emakumeok, eta lehen bilerarako deia zabaldu genuen herrian.

Nola gogoratzen duzue lehenengo bilera?

Ruiz de Gopegi: Lehenengoan hoge

“Herri txikietan bizi garenok bigarren mailako herritar moduan hartzen gaituzte, baina ez daukagu besteei baino eskubide gutxiago”

Patricia Ruiz de Gopegi Martinez

lagun inguru elkartu ginen, kezkaz eta herria mugiarazteko irrikaz.

Entziondo: Testuingurua aztertu ostean, eta zerbait egin beharra zegoela hausnartuta, lehenengo urrats moduan kexa bat idatzi genuen, eta hori balioan jartzeko, sinadura bilketa bati ekin genion. Lekeition dagoeneko 2.237 sinadura inguru bildu ditugu eta Lekeitioko ambulatorioan zerbitzua jasotzen duten

herrietan ere oso ondo erantzun dute. Sinadura horiek, gure kexarekin batera, Osasun Sailera bideratzea da gure asmoa.

Orain arte egon den pediatriak Bilboko lanpostu batera aldatzea lortu du. Zer gertatuko da Lekeitioko pediatriaren hutsunearekin?

Entziondo: Bai, horrela da, orain arte gure herriko eta inguruko umeak artatzen zituen medikuak beste lanpostu bat eskuratu du. Lekeitioko lanpostua, beraz, hutsik dago, eta gure susmoa da hutsik jarraituko duela, inork ez baitu gure herrira etorri nahi.

Ruiz de Gopegi: Erabaki edo gabezia hori ulertzeko testuingurua aztertu behar da lehenbizi. Lekeitioko pediatriak 1.021 umeko ratioari erantzuteko ardura dauka, kontuan izan gabe osasun-txartel individualik ez dutenak eta uda garaian, herriaren biztanleria hirukoiztearekin batera, etortzen direnei ere arreta eman beharra. Normalean pediatria batek 800 ume artatzeko ardu-

ra izaten du eta Lekeitio eta inguruotan kopuru hori aise gainditzeko da. Pediatra bat eta erdi beharko genuke herrian, eta orain arte erdi batekin egon gara. Gauzak horrela ikusita, ulertzekoa izan daiteke lanpostu hori betetzeko medikurik prest ez izatea. Horregatik, Osakidetzak ardurak hartu behar dituela uste dugu.

Zuen aldarrikapenak, baina, pediatria zerbitzutik haratago ere badoaz. Herrian ginekologia eta obstetrizia zerbitzuak eta larrialdi zerbitzuen beharra ere badagoela azpimarratzen duzue.

Entziondo: Bai, horrela da. Ginekologia zerbitzua, esaterako, 2014ra arte bermatua izan genuen herrian, eta saio horretan Osakidetzak zerbitzu hori Lekeitiotik Gernikara mugitzeko ahallegina egin zuen. Orduan herriko emakume taldeak egindako borrokari esker, udalak eta Osakidetzak hitzarmena adostu zuten, bi astetik behin behintzat ginekologia zerbitzua herrian izateko. Egun, hitzarmen hori ez da betetzen,

“Ez da kasualitatea taldean soilik emakumeok elkartzeko. Hainbatetan aldarrikatu dugu zaintza lanak ez direla soilik emakumeonak, baina gero praktikan argi ikusten da”

Marina Entziondo Txakartegi

eta Lekeitioko eta inguruotako emakumeok Gernikara joan behar izaten dugu ginekologia kontsultara.

Ruiz de Goegi: Hitzarmen hori inda-

rrean egon denean ere gorabeherak izan dira ginekologia zerbitzuarekin. Osakidetzako arduradunek behin baino gehiagotan zerbitzua herritik kentzeko ahallegina egin dute, eta herritarrek berriro atera behar izan dute kalera.

Entziondo: Herritarrok, baina, ezin gara behin eta berriz gure eskubideak berma daitezen ziurtatzeko kalean egon, ezin dugu bi urtetik behin sindura bilketa eta mobilizazioekin aritu; gure osasuna ezin da erabaki politikoen menpe egon, zerbitzu duinak behar ditugu herrian.

Emaginaren gabeziaren ardura ere badaukazue taldean.

Ruiz de Goegi: Bermerik ez dauka, baina arriskua hor dago. Orain arte ikusi dugunetik abiatzen gara baieztapen horiek egiteko; izan ere, emagina falta izan denean ez dute ordezkorik jarri. Herrian hainbat urtez izan dugun emaginak denbora gutxi barru erretiroa hartuko du, eta zaila ikusten dugu ordezkoaren bat jartzea.





TXOP1

Larrialdi zerbitzuekin zer gertatzen da?

Entziondo: Jakin badakigu herrian egon direla egunak larrialdi zerbitzuetan medikurik egon ez dena, horrek guztiak dakarren arriskuarekin. Gure taldetik hori ere salatu gura dugu.

Ruiz de Gopegi: Ulergaitza da Lekeitioko larrialdietako medikuak Durango edo antzeko herrietara bideratzea han medikurik ez dagoelako. Lekeitioko larrialdietako medikurik barik saldu ta gaude. Gertuen daukagun ospitalea ordu betera daukagu eta hori gutxi baltz bezala, herrian ez daukagu medikalizatutako anbulantziarik. Ni neu duela urte batzuk etorri nintzen Lekeitiara bizitzera, eta ordura arte errealitate hau arrotza zen niretzat. Herri txikietan bizi garenok bigarren mailako herritar moduan hartzen gaituzte, baina ez daukagu besteek baino eskubide gutxiago, inolaz ere. Egoera hau plazaratu behar dugu, beste herri batzuetan ere antzeko egoeran daude, azaleratu behar dugu.

Herriko osasun zerbitzuen gabeziak salatzeke hainbat ekintza egin dituzue. Orain arte zer nolako erantzuna izan du herriak?

Ruiz de Gopegi: Sinadura bilketa arrakastatsua izaten ari da, eta kontzentra-

“Hauxe da borrokatzekeo momentua, zerbitzuak murriztu ostean zaila da galdutakoa berreskuratzea”

Patricia Ruiz de Gopegi Martinez

zioan ere espero baino herritar gehiago elkartu ginen. Kirol talde eta eragile ugari ere bere egin dituzte gure aldarrikapenak. Herritarren artean kezka badagoela esatera ausartuko nintzateke eta mobilizazioei ondo erantzuten ari dira, hori poztekoa da.

Entziondo: Herritarren erantzuna oso ona izaten ari da, baina motorra osatzen dugunok nahiko bakarrik sentitzen gara. Bospasei emakume batzen gara, baina borroka hau herriarena dela ulertzen dugu. Horregatik, herritarrek gurekin batera lan egitera animatu nahi ditugu.

Emakumeak soilik osatzen duzue

talde motorra deritzona?

Entziondo: Betiko kontua da, ez da kasualitatea borroka honen motorra den taldean soilik emakumeok elkartzea. Hainbatetan aldarrikatu dugu zaintza lanak ez direla soilik emakumeonak, baina gero praktikan argi ikusten da. Talde honetan ez dago aita bakar bat ere.

Ruiz de Gopegi: Egia da gizonezkoek mobilizazioetan parte hartu dutela eta hori poztekoa da, baina mobilizazio horien antolakuntzaren atzean emakumeak besterik ez gaude, errealitatea hori da.

Noiz arte jarraituko duzue aldarrikapen hauekin?

Ruiz de Gopegi: Zerbait lortu nahi badugu, herria mobilizatu behar da, zarata egin behar dugu. Hauxe da borrokatzekeo momentua, zerbitzuak murriztu ostean zaila da galdutakoa berreskuratzea.

Entziondo: Instituzioek ere badute zeregina auzi honetan. Gu kalean eta behar den lekuan egongo gara, baina haien babesik gabe nekez lortuko dugu ezer. Bide onetik goaz, udalak ere bat egiten du gure eskariekin; Osakidetza bere erantzukizunaren ardura hartzea baizik ez zaigu falta. ●

ASTEKARIA

DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



Iritzi bat errotulagailuz marraztua

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela ez da beti egia izango, baina Adur Larrea gure asteroko iritzigilearen kasuan bai. *Ez hanka ez buru* atalean marrazki bidez jartzen dio aho-tsa gaurkotasunaz esan nahi duenari eta bi mila hitzen balioa ere ematen die bere ilustrazioei.

Goizeko albistea iluntzerako zahar-akituta geratu da, beste gertakari batek kendu dio lekua lerroburuetan. Hori da gaurko egunerokoa. Nola lortu astekari batean aktualitateaz mintzatzea atzera geratu gabe? Galdera hori eginez hasi dugu elkarrizketa eta erantzuna argia izan da: “Geroz eta iraungitze-data laburragoa dute gaurkotasuneko gaiek eta sare sozialei esker (edo erruz!) buruan zenuen gag edo delako ideia beste batzuek eginga dute jadanik, beraz, txistea ehizatzeke eremua txikitzen da. Hortaz, sarritan, gai atemporalagoak lantzen edo gai berari bigarren eta hirugarren buelta

bilatzen saiatzen naiz”. Pil-pilean dauden gai sozial eta politikoak ekarri ohi dizkigu paperera Larreak, bere interesekoak –noski, horretarako eskatzen baitzaio bere iritzia!-. Bere estilo eta koloreekin jotzen du, eta zera azpimarratu digu: “Saiatzen naiz azaleratzen gizartearen problematikak eta kezkek, edo beste ahots batzuen errebindikazioak anplifikatzeko ere baliatzen dut”.

Atseginez jasotzen ditu bere iritzien kritikak, zerbait eragiten duten seinale. Sortu du inguruan polemikaxoren bat edo beste eta aitortzen du “kritikak jasotzen eta eztabaidak pizten jarraitzea espero” duela.

DEMAGOGIA INSPIRAZIO

Idaztera ohitua denari zail egiten zaio irudikatzea nola esan litekeen berak bi mila hitz idatzitan esaten duena, irudi bakar batean. Ilustratzaileak horixe du, ordea, bere hitz egiteko era, eta dio: “Sintesi lana



da, nire egiteko maneran flash batean heldu beharko litzaioke irakurleari eta horretarako hitz joko edo esaera zaharrak baliabide osagarriak izan daitezke”.

Batzuei dutxan pizten omen zaie bonbilla, pasean dabiltzala beste batzuei. Adur Larreak aitortu digu demagogia, hipokrisia eta populismoa dituela bere ilustrazioetarako inspirazio-iturri. Gariotan badu nondik edan! ●

IN EXTREMIS, MILA ESKER



JOSEBE BLANCO ALVAREZ

In *extremis* heldu naiz orrialde honetara. Patuak hala erabaki du. Izan ere, orain dela bi aste erdi idatzita nuen gaurkoa, baina dokumentua gorde gabe ordenagailua itzali, eta han joan zen egindakoa. Beraz, hemen naiz, abiapuntuan eta gaia guztiz aldatuta. Zoriak halaxe erabakita.

Nahiko sendoak ziren gai ezkorrez idazteko arrazoiak, baina itzuliko dira, berandu baino lehen, horiei heltzeko uneak. Orain zuen begiradak jasotzeko momentua da.

"Artzaina izan nahiko nuke", esan didazu. Kontakizunari baldintza hipotetiko batez ekin diozu, eta horrekin nahikoa izan dut ametsari etorkizunik ez diozula ikusten antzemateko. Nahiko nuke, baina oso zaila da. Ez daukat lurrik. Ez daukat baserririk. Ez daukat... aukerarik? Batzuetan baldintza hipotetikoa kabroia da, oso kabroia.

Hala ere, zure begiek ez dute gezurrik esaten, eta barru-barruan bizi duzu artalde. Agian, oso argi izan gabe horrek zer dakarren. Edo bai, badakizu, beste horren begietan ikusi duzulako. Orduan hasten naiz ni, zure hipotetikoa errealera pasatu nahian, galdezka. Zuk emandako ezezko bakoitzaren ondoren, nire ziaboga. Azkenengoan, ni, ez dagoela eredu bakarra artzain instalatzeko, kolektiboan ari direnak ere badirela. Eta baserri honen sorrera kontatu dizut. Etxera gonbidatu ere bai, lasaiago hitz egitera.

Zurekin, ordea, ezberdina izan da: "Artzaina izan nahi dut, eta jakin nahiko nuke"... Arakatze prozesuan zaude, susmatzen duzulako –edo jakin badakizulako– aukera egon bada-goela. Amonaren baserrian edo lagun batek dituen lurretan, ez dakit, baina zuk baduzu horren guztiaren berri. Ezagutza falta zaizula

diozu, probatu nahiko zenukeela denboraldi batez artalde batean bizitzen. Ikusi omen duzu Wwoof sarean gaudela... Kontatu dizut gurean uda ez dela sasoirik onena ardien artean ibiltzeko, hobe duzula erditze garaian etortzea, intentsua bezain ederra dela. Eta gogorra, noski. Horretan geratu gara, bisitan etorriko zarela etxeko besteak ezagutzera.

Autoan, etxerako bidean, pozik noa. Zure hitzak gogoan pasatzen ditut kilometroak, eta barrenak esaten dit, behin eta berriz, badela esperantza. Baita ofizio honetan ere. Berdin dio hipotetikoan ala errealean. Sukaldean sartu bezain pronto, ezagutu zaitudala kontatu diet etxekoei. Haiek ere poztu egin dira, ardiekin amets egiten duzulako.

Askok diotenen kontrara, zu ezagutu izanak baieztatzen dit badirela gazteak –eta ez hain gazteak– euren burua baserrian eta artalde batekin ikusten dutenak. Kale egiten dugunok, ziur aski, geu gara, baserritarrok, gure txikian, zuen bokazio horri eta herri honen elikadura eskubideari erantzuten asmatzen ez dugulako. Ezta administrazioak bere handian ere. Lurraren gaineko espekulazioari mugarik jartzen ez diolako, diru-laguntzetako irizpideek zorpetzera bultzatzen zaituztelako, nekazaritzarako lan unitatetik kanpo lan asko uzten dituelako, industriari ezarritako baldintzak zuri ere aplikatzen dizkizulako...

Ile-moztaileak bukatu du bere lana. Izan dituen laguntzaileei akitu zaizkie indarrak. Eta niri denbora. Esan dizut, *in extremis* heldu naiz hona.

Dena den, ez dut bukatu nahi eskerrak eman gabe, begiradaz etorkizuna badela egiaztatzearen. ●

A ZE FAUNA!

EUSKAL HERRIKO PEREZ
SAGUTXOA

EGOITZ ALKORTA MIRANDA
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

Saguzarrek *Chiroptera* taldea osatzen dute. “Cheir” eskua, “pteron” hegala, antzinako grezieran. Beraz, eskuetan hegala. Hegan egin dezakeen ugaztun bakarra izanik, airea konkistatu eta sekulako arrakasta lortuta, mundu osoan ia 1.500 saguzar espezie daude deskribatuta.

Gure artean ikusienetakoa eta ezaguenetakoa, pipistrelo txikia da. Zinez da txikia (3,5-5cm) eta Euskal Herri osoan bizi da. Pitzadura eta zuloetan gorde zaile da eta orotariko habitatetan aurki daiteke, baita eremu urbanoetan ere. Herrietako farola inguruetan ikusten dugun saguzar sinpatikoa pipistreloa da. Argiak erakarritako intsektuei segika ibiltzen da, horiek harrapatzeko sekulako akrobaziak eginez.

Horretarako punta puntako teknologia erabiltzen du: ekolokalizazioa. Muturra erabilia ultrasoinuak igorri eta oihartzuna belarriekin jasotzen du. Bere burua kokatu eta inguruko forma eta distantziak ezagutzeko erabiltzen du sistema hau, milisegundo eta milimetrotroko zehaztasunarekin. “Ikusi” egingo du parean zer daukan; arbola, etxea edo hainbeste desiratzeko duen zomorroa! Nondik uste duzue bada, datorrela, auto modernoan aparkatzeko sentsore bidezko sistema?

Pipistrelo txikiak taldean biltzen dira askotan, elkarren arrimoan babesa bilatuta. Babesleku hauek etxe eta baserrietako ganbaretan egoten dira maiz eta honek baditu bere alde txarrak, saguzararentzat noski. Sarritan saguzar koloniak akabatu edo bidali egiten dira sortu ditzaketen eragozpenenga-



DAVE THOMAS

tik. Gainera, babesleku asko galtzen dituzte eraikin zaharrak eraisteagatik, berritze lanengatik eta eraikin berrietako diseinuan ez dagoelako zulo, hutsune, pitzadura edo antzekorik. Behar beharrezkoa da eraikin eta azpiegitura berrietan, hegazti eta saguzar espezie batzuk kontuan hartzea. Etorkizuneko (eta oraineko) arkitekturak bateragarria behar du izan fauna espezie berezi batzuen kontserbazioarekin. Arlo honek hobetzeko asko daukagu oraindik.

Intsektujale amorratu honek bizi izan ditu garai hobeak. Eremu urbanoetan daukan mehatxuez gain, nekazaritza eredu berrietako pestiziden erabilera intentsiboak, habitaten eraldaketak, aldaketa klimatikoak eta espezie inbaditzaileek mota guztietako zomorroen gainbehera larria ekarri dute, eta horrek zuzen zuzenean eragiten die saguzarrei. Eta naturak denak behar, zomorro txikiak eta ehiztari txikiak. Eta guk ere bai. Bada garaia saguzarrekiko dugun pertzepzioa aldatzeko eta ugaztun harrigarri hauek miresteko. Ekaritzen dizkiguten onura guztiez jabetu eta merezi duten errespetua erakusteko. Hobeto ezagutzeko beharrezkoak diren ikerketak lagundu eta babes neurriak hartzeko.

Gutxiago ikusten omen da orain... garai batean askoz ere gehiago. Hain zen

PIPISTRELO TXIKIA

Pipistrellus pipistrellus

TALDEA: Ornoduna/Ugaztuna.

NEURRIA: 3,5-5 cm.

NON BIZI DA? Mota guztietako habitatetan, baita eremu urbanoetan ere.

ZER JATEN DU? Eltxoak eta sitsak.

BABES MAILA: Europa mailan babestua. Beste saguzar espezie asko “galzorian” edo “kaltebera” mailan daude Euskal Herriko hainbat katalogotan.

ezaguna, non etxe askotan hortza botatzen zitzaion saguzarrari, leihotik: “Saguzarra! Har ezan hagin zaharra!”, eta segidan: “Eta ekar ezan berria, saguzar barregarria!”.

Argia gutxitzen hasten den momentuan saguzarren hegaldi irregularrak behatzea gauza ederra da. Baina, belau-naldi berriek izango al dute aukerarik saguzarrari hortza botatzeko? ●

AZPIAK EGITEN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Baratzea laster izango da bere onean. Udazalea bazara. Neguko baratzea ere eder askoa da, bere unibertso urdinarekin: porruak (*Allium porrum*), azatarrek (*Brassica spp.*) eta abarrek osatzen dutena. Jendeak, baina, udako baratze koloretsua nahiago izaten du; tomate (*Solanum lycopersicum*) goratua nahi du eta bere akolito berozaleak: piperrak (*Capsicum annuum*), alberjinia (*Solanum melongena*) eta abar.

Ongarriak aspaldi emanak izango ditu lurrak, satsa, luarra, kortalohia, edo dena delakoa. Orain lurra sasoian jarri eta azaro ona denean landareak erein, landatu eta, batez ere, zaintzearen txanda da. Uzta arteko zaintzarena.

Zaintza horretan uraren kontrol egokia tantoaren erdia da. Isuri atlantikoan, ohiko eguraldia bada ureztatu beharrik ez da izango. Baldin eta ez bada ikaragarriko agorraldiren bat etortzen. Orduan bai. Baita isuri mediterraneoan ere. Hor ura beharko da.

Ureztatzea lana da eta dirua. Ureztatzea garestia da. Erabilitako urari etekin onena ateratzea da zaintzailearen helburua. Horretarako, egunabarrean ureztatzea, behar den kopurua eta abar zorrotz begiratzen dira.

Landareei azpiak egitea da beste teknika eraginkor bat. Aziendari ukuiluan bezala, landareei ere inguru guztian lur gainean, lurrestali, zerbait jartzen zaio bi nahirekin: nahi ez dugun belarrik ez sortzea eta, batez ere, lurretik lurruntzen den urari lurrazalean eustea, landareen sustraiera. Era berean lurrraren azala ez da lehortuko, gehiago edo gutxiago ongarritu egingo du eta landareen bizimoduari eusten dioten mikroorganismoak indarrean eta bizi eutsiko die. Landare artean zabaltzen dena edozein material



Landareei inguru guztian lur gainean zerbait jartzen zaio bi nahirekin: nahi ez dugun belarrik ez sortzea eta, batez ere, lurretik lurruntzen den urari lurrazalean eustea, landareen sustraian eskura.

organiko izan daiteke: egur ezpala, enbor azala, txirbila, zerrautsa, birrindutako papera, kartoia, belar txikitua berdea edo ondua, lastoa, orbela, luarra, legarra, artilea, simaur ondu lehorra...

Bero eta lehorte handiak etorri aurretik hona burubide batzuk. Lurra gose antzera bada, hautatu azpitarako ongarri emari azkarra sortuko duen materiala: simaur edo luar. Zaindu etxe eta antzeko egituren aldamenean jartzen den materiala, erretzeko modukoa bada arazorik sor ez dadin. Kontuz materialarekin: intxaurren eratorriek kalte egin diezaizkete landareei; tratatutako egurrenek, berriz, lurreko bizidunak eta gu geu ere

malurtu. Lore tarteak bezalakoetan, non azpiak iraunkorra izan beharko duen, zaindu geruzaren berritzea. Belar gogorak sortzen diren tokia bada, azpitan barrena haz ez daitezen, ondo azalaitzurtu edo azalatu edo saratu edo izakitu edo azpian kartoia jarri, itotzeko; pixka batean eutsiko die, itoz, eta laster bera ere ustelduko da, ongarri. Azpiekin ez egin landarearen ipurdiaren inguruan pilarik. Beti utzi tarte bat landareari, usteldurek eta gaitzek eraso ez dezaten.

Aziendaren azpiak, luartu eta lurrraren aberasgarri edo landareen azpigai. Azpitik azpira, lehorteari aurre egiteko; soilik behar izanez gero. ●

HIRU XILO

BARATZEGINTZA EKOLOGIKO INTENTSIBOA

Sarako Nicolas Chretien dago Hiru Xilo baratze gintza proiektuaren atzean. Urtarrilean hasi zen baratzea lantzen, eta martxoaren hasieran ekin zion ekoiztiko produktuak merkaturatzeari. “Banuen formazioa baratze gintzan, baina orain arte honekin zerikusirik ez zuten lanetan aritu naiz”, azaldu du. Txikitatik maite izan du baratze gintza, dena den, eta pausoa emateko erabakia hartu du.

Saran du lursaila, eta baratzea eta fruta arbolak jarri ditu bertan, eredu biologikoa.

EKOLOGIKOA ETA INTENTSIBOA?

Nekazaritza tradizionala egiten du Hiru Xilo proiektuko ekoizleak, bere inguruan betidanik ekoizti izan diren gauzak: letxuga, tomate, beterrabak, aza, tipula... Baratzeaz gain, udazkenean fruta arbolak ere landatu ditu lursailean,



GARAZI ZABALETA

batez ere ahabiak: “Txikiak dira oraino, hemendik bizpahiru urtera hasiko dira fruituak ematen”, azaldu du. Hiru hektareako lursailean sartu ditu fruta arbolak; momentuz, alokairuan ditu lurrak.

Hasieratik, argi zuen ekoizle sara-tarrak eredu ekologikoa arituko zela. “Baratze gintzan nahiko zabaldua dagoen eredu batean aritu nahi nuen, kanadar batek, Jean-Martin Fortierrek garatutakoa. Biologiko intentsiboa esaten diogu”, azaldu du gazteak. Biologikoa eta intentsiboa, kontrako kontzeptuak irudi dezakete lehen kolpean, baina permakulturaren mundutik datorren ereduak da aipatutakoa, frantsez *marachage sur sol vivant* deitzen dutena. Lurreko bakterioen aktibitate biologikoa intentsitateari egiten dio erreferentzia izenak, eta laborariak ez du goldearekin edo antzeko tresnekin sakoneko lur-lantzerik egiten. Lurreko xixare eta mikroorganismoek uztan zaie haien lana egiten, toki txikian lur aberatsa eta ekoizpen handia lortzeko.

ZUZENKO SALMENTA LURSAILEAN BERTAN

Etxe ondoan du lursaila saratarrak, eta ekoizpenaren zati handiena hor bertan saltzen du, zuzeneko salmenta bidez. “Astean hiru egunetan jartzen naiz zuzeneko salmenta egiten, etxean bertan”, dio. Hurbileko zenbait jatetxek ere erabiltzen du bere produktua. “Momentuz oso pozik nago, eskaera badago eta ez zait zaila egiten produktua saltzea”, gehitu du gazteak.

Proiektua abiatzerako orduan, Euskal Herriko Laborantza Ganbararekin harremanetan izan da ekoizlea, eta paper kontuekin eta baimenekin laguntza handia eman diotela dio. Horrez gain, Biharko Lurraren Elkarteko kide ere bada ekoizlea. “Formazioak egiten ditut haiekin, aholkuak ematen dizkirate... sarean harremanetan egotea garrantzitsua da, eta aski kontent naiz, esperientzia ona ari da izaten”, amaitu du. ●



JESUS CARRERA

Frankistek torturatu eta fusilaturiko buruzagi komunistaren bizitza, pantailara

Hari buruzko aipamenik apenas iritsi zaigun historia liburuetan, baina Jesús Carrera Olascoaga (Hondarribia, 1911 – Alcalá de Henares, 1945) Espainiako Alderdi Komunistaren idazkari nagusi izatera iritsi zen. Frankistek atxilotu, torturatu eta fusilatua, bere gorpuzkinak 2018an azaleratu zituzten Alcalá de Henaresko hilerrian. Nor zen? Zergatik hil zuten? Zergatik egon da bere oroimena isilpean hainbeste urtez? Galdera horiek erantzun nahian ondu dute *Jesús Carrera: Hondarribiko gorria* dokumentala, Aitor Baztarrikak zuzendua.

 URKO APAOLAZA AVILA  'HONDARRIBIKO GORRIA' DOKUMENTALEKO IRUDIAK

33 urte besterik ez zituela hil zuten Jesús Carrera hondarribiarra Alcalá de Henaresen 1945ean, baina ordurako hamaika historia bizi izandakoa zen, tartean bi gerra, exilioa eta klandestinitatea. Bigarren Errepublika garaian Irungo mugimendu komunistan militatzen hasi zen eta Espainiako Alderdi Komunistako (PCE) idazkari nagusi izatera iritsi zen urte gutxiren buruan.

Baina hala ere, berari buruz apenas jakin izan da ezer orain arte, eta 70 urte baino gehiagoz bere gorpuzkinak Alcalá de Henaresko hilerrian egon dira ahaztuta, 2018an atera eta omenaldi batekin sorterriratu zituzten arte.

“Aitzol Arroyo historialariak deitu zidan esateko deshobiratu egin behar zutela. Nik ez nekien Jesús Carrera nor zen ere, baina prozesu hori grabatu eta senideen bizipenak jasotzea erabaki genuen”. Hala kontatu digu Aitor Baztarrika kazetari eta dokumentalgileak. Gero proiektu zabalago batean murgildu ziren: “Aitzolek eta beste historialari batzuek ikertutakotik abiatuta, ikusi



genuen pertsonaia historikoak bazuela mamia. Nolatan aurretik ez zen deskubritu? Zergatik egon dira bere hezurak 2018ra arte hobi komun batean botata?”, dio Baztarrikak.

Ia zazpi urteko ibilbidearen ondoren *Jesús Carrera: Hondarribiko gorria* deituriko dokumentala izan da emaitza, crowdfunding batez gain, Gipuzkoako Aldundiaren, Hondarribiko Udalaren eta Gogora institutuaren laguntza izan duena. Maiatzaren 31n estreinatu zuten Hondarribian.

PUZZLE BAT OSATZEN

Baztarrika aritu da zuzendari, gidoilari eta muntaketa lanetan, baina atzean talde oso bat izan du. Hasieratik erronka handia izan da: “Deshobiratzea orainaldian gertaturiko zerbait da, grabatu genezakeen, baina bere biografia politikoa osatzeko ez genuen ikus-entzunezko baliabiderik, kamarada guztiak hilda baitzeuden. Orduan ausartzea erabaki genuen”, dio solaskideak.

Hondarribia, Irun, Donostia, Iruñea, Aragoi, Katalunia, Madril... Geldileku asko izan dituen bidaia izan da, “puzlea geografikoki osatzeko”. Artxiboetan bila ibili dira, eta adibidez, poliziak Carrerari torturapean aterarazi zion deklarazioa aurkitu dute. Testuinguru historikoa lortzeko aditu askorekin hitz egin dute, hamalau elkarriketa guztira; besteak beste PCEn historian espezializaturiko Carlos Fernández historialaria edo Mertxe Tranche ikerlari irundarrarekin izan dira.

Eta horrez gain, Carreraren burkide izandakoen artxiboko-lekukotasunak ere lortu dituzte: “Sorpresa garran-

tzitsuak izan ditugu, adibidez badago Teresa Harina izeneko kide baten testigantza. Donostian kointziditu zuten frankismoaren hasieran, eta gero Teresa kontatzen du nola egin zuen topo kartzelan Carrerarekin, eta guztiz suntsituta zegoela”.

GERRA, ERBESTEA, TORTURAK

1911n Hondarribian jaioa, Jesús Carrerak hogeitau besterik ez zituela ekin zion ezkertiar militantziari, lehenik UGT sindikatuan, gero Irungo gazte komunistetan, eta Donostian bizitzen jarri ondoren, Euskadiko Alderdi Komunistan. 1936an faxistek kolpea jo zutenean buru-belarri ibili zen errepublikaren defentsan, besteak beste *Gernikako Arbola* batailoiko komandante lanetan, 25 urte besterik ez zituen.

Gerrako bere ibilbidea beste askoren antzekoa da: Asturias, Katalunia... 1939an milaka lagunekin Le Perthuseko muga gurutzatu zuenean, Frantziako kontzentrazio esparruak ezagutu zituen –tarteetan Gurseko “euskaldunen zelaia”– baina azkenean ihes egin ahal izan zuen, burkide komunistek lagunduta.

Jesús Monzón buruzagi nafarraren esanetara, bitartekari lanak egiten hasi zen Espainiako eta Frantziako PCEn egituretan, eta orduan, berriz ere, Espainia frankistan sartu zen ezkutuan, alderdia berregituratu eta zelula komunistak sortzeko. Horrela izendatu zuten alderdiaren barrualdeko idazkari nagusi, baina 1943ko martxoaren 15ean atxilotu zuen polizia sarekada batean, karguan jarri eta gutxira.

Modu basatian torturatu zuten Carrera. “Ziurtasun hori dugu, belauna txikituta zuelako”, azaldu digu Baztarrikak. Torturena garrantzitsua izan zen 2018an Aranzadik Pako Etxeberriaren zuzendaritzapean egindako deshobiratzeari bere gorpuzkiak identifikatu ahal izateko. “Teresa Harinek kontatu zigun Alcalá de Henaresko kartzelan ihesaldi bat antolatu zutela, baina Jesúsék ezin izan zuela parte hartu, fisikoki eta mentalki guztiz hautsita zegoelako”. Gero hainbat ihesaldi saiakera egin zituen arren, Carrera 1945eko urtarilaren 16an fusilatu zuten.

ESPASIO PUBLIKOTIK APARTE

Baina hasierako galderak hor dirau: nolatan ez genekien ezer berari buruz? Baztarrikaren aburuz, baliteke bere heriotza goiztiarrak –33 urterekin fusilatu zuten– zerikusia izatea: “Euskal Herrian Dolores



Ibarruri *La Pasionaria* eta halakoak ezaugarriak ditugu, ibilbide politiko luzea egin zuten. Carrera idazkari nagusi izan zen, baina klandestinitatean aritu zen alderdiaren egitura indartzen, ez espazio publikoan diskurtsoak ematen”.

Oinordekoek, María eta Xabi Carrera ilobek, informazio oso gutxi jaso dute etxean bere senideaz: “Aitak periodikoko errekorre bat zeukan eta beti esaten zuen Gernika Batailoiko komandante izan zela”, dio Xabi Carrerak dokumentalean, baina apenas zekiten ezer gehiago. Bere gorpuzti tirokatuari jaurtiriko lur guztiak

baino, berrogei urteko diktadurak lan handiagoa egin zuen memoria estaltzeko.

Hondarribiko estreinaldiaren ondoren, egileen asmoa da filma Euskal Herriko beste herri batzuetan zabaltzea: “Dokumental didaktiko bat egin nahi izan dugu –diosku zuzendariak–, ez soilik alderdi komunistan zentratua. Azken batean, Jesúsék Europako historiako momentu garrantzitsu batzuk bizi izan zituen, eta bere bidez, oso denbora laburrean testuinguru oso desberdinetara moldatu behar izan zuten milaka herri-tarrek bizitakoa erakusten saiatu gara”. ●

DADA BAROISA JAIO ZELA 150 URTE

Dada zamalkatu zuen amazona

Beste hainbat emakume artistaren gisara, Elsa von Freytag-Loringhoven (1874-1927) abangoardien historia ofizialetik erabat ezabatu zuten, bere jardun artistikoaren muina, sutsua bezain berritzailea izan arren.

 JULEN AZPITARTE

New Yorkeko mugimendu dadaistaren barruan aritu zen nagusiki, dadaisten asmoak gauzatu zituen militante bakarra bilakatzera, bere bizitza eta gorputza artelan bihurtzea lortu baitzuen. “Lehenengo dada amerikarra da Elsa, bera da dada jantzi, dada maitatu, eta dada bizi duen bakarra”, idatzi zuen Jane Heap kritikari literarioak *Little Review* aldizkarian, 1922an. Hala, artearen historiak emandako lehen artista performatiboa ez ezik, muntatutako eskulturen edo *assamblages*-en eta *ready-made* eskulturen aitzindaria ere izan zen. Hau da, hasiera batean arte baliorik ez duten eguneroko objektuak artetzat hartzea.

Elsa von Freytag-Loringhoven (EvFL) artistaren obra urria da museotan. Daudenen artean, esaterako eduki sexual ezaren onomatopeia soinuak jotzeko poema gordin batzuk: “Larrua jotzea debekatuta dago, hildakoen artean bezalaxe”, *Baselina*. Bizpahiru eskultura, tartean 1917ko *God*, AEBetako lehen obra dadaistatzat jotzen dena. Mugimendu dadaistako kide Man Ray egindako zenbait argazki ere badaude, EvFL modelo agertzen dela. Bere itzala luzea izanagatik ere, erabat lausoturik geratu da, bere arteak haizatzen zuen iragankortasuna tarteko. Desagerrarazte horren beste arrazoietako bat in-

guruan zituen artistengan aurki daiteke, gehienak gizonak izaki, besteak beste, Duchamp, Man Ray, Arthur Cravan edo Carlos Williams Carlos. Emakume sortzaileak gutxietsi egin zituzten, sarritan, maniki baten funtzioetara mugatzeraino.

Isilarazte horren erakusle nabarmena da Marcel Duchampek 1917an eraku-

tsitako *Font* (Iturria) artelan iraultzailearen aferra: egungo ikerketan arabera, XX. mendeko artelan garrantzitsuenetakoa benetako egilea EvFL da. Horrela iradoki zion, hain zuzen, Duchamp frantziarrak Suzzane bere ahizpa artistari 1917ko apirilaren 17an bidalitako gutun batean: R. Mutt izengoitiarekin sinatuta paratu zuten obra Artista Independenteen Elkartean ondutako eta Duchampek berak apailatutako erakusketan, eta komisarioak idatzitakoaren arabera, Richard Mutt ezizena erabiltzen zuen artista-lagun batek bidali zion portzelanazko pixalekua AEBetarik. Erakusketan paratu zuten. “Ez zen batere zikina; ez zegoen arrazoirik baztertzeko”. Pixatokiak ordura arteko artearen kontzeptua irauli zuen, eguneroko artefaktu bat artetzat hartu baitzen estreinakoz. Duchampek, ordainean, esaldi bakarra eskaini zion berezko egileari: “Ez da futurista, etorkizuna da”.

Bada, 2000 urteaz geroztik, jatorri alemaniarreko artistaren inguruko hainbat ikerlan burutu dira, eta lan horri esker Elsari buruzko gero eta xehetasun gehiago zabaldu dira. Horren erakusle, Kataluniako Arcadia argitaletxeak oraintsu plazaratutako liburua, Joana Masó eta Éric Fassin autoreek idatzitakoa, *Elsa von Freytag-Lor-*



Font (Iturria) obra, Pixatokia gisa ezaguna. Duchamp-ek gina dela esan izan bada ere, EvFLrena da.

ringhoven. La artista que dio cuerpo a la vanguardia (Elsa von Freytag-Loringhoven. Abangoardia gorpuztu zuen artista). Artistaren jaiotzaren 150. urteurrenean argitaratu berri da. “Bizitza nire pasioekin bizi dut –nirekin–, gizonak gizon ez direnetik, baizik eta prostitutak (...). Nik oraindik nire botere guztia mantentzen dut –amazona bat naiz–, nire joerak, dardarik gabe, prostituziora baino, desesperaziora eta krimenera eramango nau”.

PROTOPERFORMER-A

New Yorkeko giro dadaista ezagutu baino lehen abiatu zuen bere ibilbide artistikoa EvFLk, 19 urte zituela, Berlingo kabaretetako gau lizunetan bar-na murgildu zenean, aitaren indarkeria pozoitutik ihesean ari zela. Maritzar aritzeaz gainera, estatua lana egin zuen pintoreentzat. Berlingo gau zantarrean ezagutu zuen, hain justu, bere lehen senarra, August Endell arkitekto modernista, eta haren bidez egin zuen salto pinturara. 30 urterekin Felix Paul Greve idazlearekin ezkondu zen, eta 39 urte zituela, Leopold von Freytag-Loringhovekin ezkondu zen; haren eskutik iritsi zen New Yorkera.

Aurretik, 1903an eta 1904an, Italiara joan zen, bere lehenengo *happening*-a burutzeko; alegia, planifikaziorik gabeko eskuhartze artistiko bat: Napoliko Arkeologia Museoko Kabinete Sekretura sartzea lortu zuen, zeinetara ezinezkoa zuten emakumeek sartzea, Antzinako Erromako pieza artistiko erotikoak erakusten baitziren.

Hara eta hona paseatu zen, objektu falikoak eta sexu irudiak erakusten zituzten artelanak behatzen, arau matxistak eta ezarritako genero rola hausteko asmoz. Jarduera horren irudirik ez da existitzen.

Eta gauza bera gertatu zen 1921ean, New Yorken, jada baroisa zela, bere pubisa soildu zutenean, pelikula estereoskopikoan jasotzeko helburuz, Man Ray eta Marcel Duchampen laguntzaz. *Elsa* izeneko performance horretan, EvFLk 50 urte zituen, eta bere gorputza gaztetasunari lotzen zaion edertasun arautzailetik urrun zegoen. Jarduera hori ere erregistratu gabe gelditu zen, filmazioan okerra gertatu baitzen;



God (Jainkoa), 1917koa, EvFLren obra entzutetsua da, AEBetako lehen obra dadaista.



EvFL argazki saio batean, obra baterako.

halere, Man Rayk irudiren bat gorde zuen, baita Tristan Tzara agintari dadaistari bidali ere, eskutitz batean.

HONDAKINETAN, “JAUNGOIKOA”

Objektu industrialak beren ohiko testuingurutik atera eta bestelako zentzu artistikoa emateko asmoz, EvFLk zaborrera jotzen zuen, eta zarama artean kausitu zituen, hain justu, bere eskultura ospe-tsuenak. Tartean 1917ko *God*. Burdinazko hodi-pieza bat da, zurezko inglete-kaxa baten gainean alderantziz jarria. Iritzi batzuen arabera, piezaren itxura falikoak Jainkoaren agintea irudikatzen du. *Jainkoa* eta *Pixatokia* elkar solastatzen diren bi obra dira, besteak beste, urte berean eraiki zirelako. Filadelfiako (AEB) Arte Museoa paratu zuten *Jainkoa*, eta Morton Livingston Schamberg izendatu zuten obraren autore. Gerora, baina, EvFLren autoretza ere aitortu behar izan zuen erakundeak: EvFLk aurkitu omen zituen obra osatzen duten zatiak, eta Schambergek muntatu egin zuen, eta argazkia atera ere bai.

EvFLren beste hondakin-eskultura ezagun bat 1913ko *Enduring Ornament* (Apaindura iraunkorra) da. Marcel Duchampek egindako lehen *ready-made*-aren garaikide, *Roue de bicyclette* (Bizikletaren gurpila) eratzun metaliko handi bat da, besoko modukoa, zeina Leopold von Freytag-Loringhoven baroia-ekin ezkontzera zihola aurkitu zuen. “Izenburuan iragartzen zuen iraunkortasuna ez zen sekula bete, Leopold armadan sartu baitzen, Lehen Mundu Gerra hastean, eta Elsak ez zuen berriro ikusi, 1919ra arte, Suitzian bere buruaz beste egin zuenean”. Hori xe diote Joana Masó eta Éric Fassinek *Elsa von Freytag-Loringhoven. La artista que dio cuerpo a la vanguardia* liburuan.

Baroisa dadaistaren heriotza ere ustez suizidioz gertatu zen, ezkaratzeko gasa arnastuta, xentimorik gabe eta erokeriak jota zegoela, 1927ko abenduaren 14an, Lehenengo Mundu Gerrak deuseztatuko Berlinen.

OHARRA: Testu hau egiteko lagungarria izan da *Pop Pilulak* fanzinearen 6. alean jasotako eta Michiko Kambak idatzitako *Elsa von Freytag-Loringhoven. Dada Baronesa* artikulua. ●

ASKATASUNERAKO DANTZALEKUA

Zaintzan oinarrituriko gau aisialdi “askeagoa” eta “seguruagoa” sortzeko asmoz sortu da Harrika kolektiboa. Bi urte daramatzate Gasteizen tekno besta kuir eta feministak egiten. Uztailaren 26tik 28ra Harrikada Festibala izanen da Izarran (Araba).

 OLAIA L. GARAIALDE  DOS POR DOS / ARGIA CC BY-SA

K antatu, maitatu eta dantza (edo zalantza) ezin bada, ez da gure iraultza”, dio Anarik, Nacho Vegas asturiarraren *Vinu, cantares y amor* kantaren euskarazko bert-sioan. Bide horretatik doa Harrika kolektiboa; izan ere, tekno musika abiapuntu izanik, hilabeteen behin jaialdi kuir eta feministak antolatzen dituzte Gasteizko Jimmy Jazz aretoan. “Dantzalekuen askapenerako mugimendua bultzatu nahi dugu. Hau da, dantzalekuei beste buelta bat ematea”, azaldu du Galder Beramendik, Harrika kolektiboko kideak.

Teknoaren loraldiak hauspotuta, zaintzan oinarrituriko jai ereduak sustatu nahi dituzte, eta bereziki, emakume eta pertsona sexu-genero disidententeen zako askatasun espazio bat sortu: “Euskal Herrian eta leku askotan zoritxarrez jaiak gizon zisheteroenak dira, ez bakarrik kopuruan, baizik eta espazioa hartzeko moduagatik eta eurei begira antolatuta daudelako jaiak”.

Horregatik, jaia antolatzerako orduan, emakumeak eta pertsona sexu-genero disidenteak lehenetsi eta eurentzat gordetzen dituzte aretoko lehen ilarak.

“ ”

“Tekno jaialdiak oso maskulinoak izaten dira; gure ardura da bermatzea lehenengo lerroak emakume eta identitate subertsiboentzat izango direla”

“Tekno jaialdiak oso maskulinoak izaten dira; horregatik, gure ardura eta lana dira bermatzea jaiaren lehenengo lerroak emakume eta identitate subertsiboentzat izango direla”, azaldu du Uxue Alonsok, Harrika kolektiboko kideak. Irizpide horren arabera aukeratzen dituzte gaualdi bakoitzeko artistak ere. Horrez gain, hasiberriak diren artistak, ibilbide luzea dutenak, tokian tokikoak

zein nazioartekoak izatea kontuan hartzen dute. Erika Roselló, Elena Barker, Beatrice eta Alaine MRK izan dira, besteak beste, Harrikan izan diren artistak.

Zaintza taldeko kideak aretotik bueltara ibiltzen dira besoko distiratsu batekin. Zerbait behar duen edonork identifikatzea da asmoa. “Gu ez gara seguratak, eta ez gaude inor botatzeko. Norbaitek arauak betetzen ez dituenean hezten eta azaltzen saiatzen gara, baina parranda giroan oso zaila da. Ez badute ulertzen horrela ezin dutela jokatu, aretotik kanporatzen ditugu”, esan du Alonsok. Zazpi emakumez osaturiko talde bat da, normalean emakumeek “itzaletan” egiten duten lana ikustarazi nahi dutelako: “Azken finean zaintza taldeak egiten duena da emakumeok eta disidenteok beti parrandan egin izan duguna; beti zaintzen aritzen gara eta besteei zer moduz dauden galdetzen”.

Zenbait gauza adostuta dituzten arren, zalantzak eta eztabaidak sortzen dira kolektiboan. Zaintza taldearen kasuan, esate baterako, zaintza oso feminizatuta dagoela erakutsi nahi duten arren, batzuetan uste dute “aberasga-

rria” izan daitekeela pertsona sexu-gero disidenteak ere taldean sartzea, emakumeez gain: “Ez gaude itxita jendea etortzeko edo ez etortzeko; uste dut beste disidente batzuek parte hartzea polita izan daitekeela”.

MUGIMENDU FEMINISTA OINARRI

Espazio seguruak lortzea “ezinezkoa” den arren, zaintza “ahalik eta gehien” bermatzen saiatzeko zenbait arau ezarri dituzte. Alde batetik, jaiaren inguruko arauak azaltzen dituzte atarian, aretora sartzen diren pertsonen pixka bat galbahea pasatzeko. “Horrela jendeak badaki zer-nolako espaziora doan”, dio Beramendik. Bestetik, sarreran, saketako telefonoetako kamerak estaltzeko pegatinak banatzen dituzte, debekatuta dagoelako argazkiak ateratzea eta bideoak grabatzea: “Horri esker, pertsona batzuek sarreran badakite nora doazen, eta ez sartzea erabakitzen dute”.

Beramendiren ustez, horrelako espazioek “erosoago” egoteko aukera eskaintzen dute. Bera, esate baterako, lasaiago jantzen eta makillatzen da Harrikara doanean: “Zenbat eta biluziago egoteak ez du esan nahi orduan eta askeago zarenik, baina egia da irudirik ezin denez atera erosoago sentitu zaitezkeela normalean eramaten ez duzun zerbait jantzita edo makillatuta”. Hala ere, ez dago estetika finkorik eta norberak nahi duena jantzi dezake. Gaineratu du estetikarekin jolasteak nortasuna adierazten lagundu dezakeela: “Euskal Herrian oso karratuak gara jaietarako; sormena bultzatzeko espazio bat izatea ederra da”.

Horrez gain, unean uneko beharrei erantzuteko protokolo bat daukate, eta “sakonagoa” den beste protokolo bat prestatzen ari dira. “Etengabe ikasten ari gara eta zalantza gehien eragin diguna izan da nola erantzun pertsona sexu-genero disidenteen kontrako erasoei. Askok landu behar izan dugu, eta etengabe aldatzen goaz”, esan du Alonsok.

Protokoloez arduratzen da Alonso: “Oso erraza da protokolo bat sortzea, zailena da praktikan jartzea. Hori da gehien kezkatzen nauena; horregatik, etengabe ikasten eta aldatzen ari gara”. Horrelako jai giroak ez dira ezerezetik sortu, mugimendu feministak aspaldi aldarrikatzen dituen zenbait neurritan oinarritzen dira: “Ez dugu deus asmatu, argi daukat jai hau posible bada mugimendu feministak egindako aurrerapausoei, lanketei eta protokoloei esker dela. Oso eskertuta egongo naiz beti”.



Prozesuan Ehgam Euskal Herriko Sexu Askapenerako Mugimenduko kideekin ere mintzatu da.

Jai nagusia 01:00ean Jimmy Jazz aretoan izaten bada ere, 22:00etan Gasteizko Txapelarri tabernan bestarako berotzen hasten dira. Bertan DJ munduan hasten ari diren Gasteiz inguruko artistek hartu ohi dute parte. Ostean, Harrika kolektiboko DJ-ek ireki ohi dute gaua, eta jarraian *performance* bat eta DJ ezagun bat izaten dira.

LEIHO BAT

Diego Ramirez de Ganuzak ez du argi noiz joan zen lehenengo aldiz Harrikara, baina badaki hirugarren edo bosgarren Harrikan izan zela. Ordutik, ia Harrika guztietan egon da. Eroso sentitzen da bertan, eta “leiho bat” dela dio: “Pertsona disidentea bazara Harrikak gauza desberdinak edo arropa disidenteak jantzeko ziurtasuna ematen dizu”.

Harrika ez bezala, parrandarako beste espazio batzuk orokorrean “oso

arrotzak” egiten zaizkio “etengabe” azalpenak ematen eta hezten ibili behar delako: “Gasteizen kuir espazioak daude, baina askotan heziketara lotuta daude; hau da, kuir pertsonak garenez inposatzen zaigu besteak hezi behar izatea. Baina ni ez naiz inoren maisua, eta ez naiz nolakoa naizen justifikatzen eta inori azalpenak ematen ibili behar”.

Horregatik, inklusioa eta zaintza uzartuz, zishetero arautik kanpo daudenentzako topaleku bat beharrezkoa dela uste du Ramirez de Ganuzak: “Espazio bat aldi berean segurua eta inklusiboa izatea oso zaila da, baina Harrikak helburu hori lortu nahi du zaintza taldearekin, kolektiboarekin eta komunitate bat garatzen; oso ideia erakargarria iruditzen zait”. Uste du ezinbestekoa dela inklusioaren eta segurtasunaren arteko oreka lortzea: “Espazio bat inklusiboa izatea nahi badugu, onerako zein txarrerako, pertsona guztiak sartu beharko lirakeke. Horrek arrisku bat dauka; biak konbinatzeko bideak topatu behar ditugu”.

Bestan parte hartzen duten agente guztien artean saretzea eta indartzea beharrezkoa dela uste du: “Kuir pertsona gisa, hetero araua oso gogorra da, eta denok ezagutzen dugu nola gustatzen zaien protagonismoa hetero arauan daudenei”.

JAIALDIEN AURKAKO FESTIBALA

Bi urte daramatzate tekno gauak antolatzen, baina lehenago hasi ziren haziak ereiten. 2018. urtean, *Harrikada* izeneko jaialdia antolatu zuten Araban. Helburua zen Berlingo tabernetako giroa Euskal Herrira ekartzea, baina pandemiarekin bertan behera gelditu zen dena. Duela bi urte, hilero jai bat antolatzeko aukera eskaini zieten Jimmy Jazz aretoan. Ordutik, hilabete gehienetako bigarren ostiraletan antolatzen dute jaiak.

2018ko jaialdia saiakera bat izan zen, eta aurten Harrikada Festibala antolatzeko asmoa dute. “Polita da areto barruan egiten duguna, baina kanpora ere atera nahi dugu”, esan du Beramendik. Uztailaren 26tik 28ra izanen da, Izarran (Araba). Tekno musika, zaintza eta landa eremua uztartu nahi dituzte. “Jaialdien aurkako jaialdia egin nahi dugu. Orain, Euskal Herrian makro jaialdiak protagonismoa hartu, eta txikiak jaten ari dira. Handiak eta izugarri masifikatuak dira, betiko artistek jotzen dute eta kapitalaren logiketan oinarritzen dira; hau da, kontsumoan”, gehitu du.


Asmoa da 300-500 pertsonarentzako jaialdi “txiki” bat egitea eta sare bat



“ ”

“Ez dugu merkatuan dagoen tekno gogorra ekartzen; ezagutzen ez duen batentzat erosoagoa eta dantzagarriago den teknoa ekartzen dugu”

ehuntzea. Jaialdian Euskal Herriko zein nazioarteko taldeek hartuko dute parte: “Euskal teknoa jorratzen duten kolektiboen erakusleho izan nahi dugu”. Horregatik, EMA, Apetak, Mixthetika, Redlux edota Frenetik kolektiboak gonbidatu dituzte, besteren artean. Nazioarteari dagokionez, Nastia eta Tauceti gonbidatu dituzte. Beraz, estilo askotariko artistak egonen dira, baina denek teknoa daukate oinarri. Doinu ilunak, azkarrak, motelak, tentsioa sortzen duten doinuak eta beste entzuteko aukera egonen da; beti ere, Harrikako esentzia mantenduta. “Ez dugu merkatuan dagoen tekno gogor hori ekartzen; ezagutzen ez duen batentzat erosoagoa eta dantzagarriago den teknoa ekartzen dugu”. ●



Historiari eta esklerosi anizkoitzari buruzko irakaspenak



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Mallorca, 1968. Joana Maria Escartin historialaria jaio zen. 1989an esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten eta joan den maiatzaren 30ean hil zen jaioterrian, 56 urte zituela, hain zuzen, esklerosi anizkoitzaren nazioarteko egunean.

Ikasketak UIBn (Universitat de les Illes Balears) egin zituen, doktoretza ere han atera zuen eta Ekonomiaren Historia irakasle ere izan zen bertan 1996 eta 2010 urteen artean, gaixotasunak utzi zion bitartean. “Oinaze maila oso altua daukat. Baina oso baikorra naiz eta, min handia izanda ere, 100 ikasleri eskolak emateko gai izan naiz, nire lanari diodan maitasuna indartsuagoa izan delako, ikasleei aurpegira begiratu eta probetxuzko zerbait irakasten niela pentsatzean mina ahazten zitzaidalako”, esan zuen duela lau urte Canal 4 telebistan egin zioten elkarrizketa batean.

Ikasgelatik kanpo, ikerlanean ere aritu zen: 40tik gora lan argitaratu zituen, “lan oso berritzaileak” UIBko kideek adierazi berri dutenez. Nagusiki Balear Uharteetan garapen ekonomikoa aztertu zuen XIX. eta XX. mendeetan, industrializazioan, bizi baldintzetan, migrazio prozesuetan eta lan merkatuan emakumeek izandako rolean azpimarra jarrita. Bere burua “feminista, sozialista eta errepublikazaleztat” zeukan, eta PSOEko militante izan zen; iazko maiatzeko hauteskunde autonomikoetan uharteetako parlamenturako zerrendetan aurkeztu zen.



Joana Maria Escartin Bisbal historialari eta ekintzailea joan den maiatzaren 30ean zendu zen. Irudian, Canal 4-rekin egindako elkarrizketaren une batean, bere etxean.

2010ean unibertsitateko lana utzi behar izan zuenean, dibulgazio lanari ez zion uko egin, eta sare sozialetan esklerosi anizkoitzari ikusgarritasun handia eman zion. Duela hilabete batzuk minbizia diagnostikatu zioten, eta ebakuntza eta tratamenduen berri ere xehe eman zuen.

Aipatutako Canal 4-ko elkarrizketa Espainiako Kongresuan eutanasiaren lege proiektua aurkeztu zen egun berean

egin zioten, 2020ko otsailean. “Eutanasia, abortua bezala, norberaren eskubidea da, inor ez dago derrigortua. Eskuindar erreakzionarioek, aurrerapen hauen aurka gogorren egiten dutenek, mina jasan nahi badute, jasan dezatela”. Bizi nahi zuela zioen, zoriontsu zela, “eta espero dut horretara ez iristea eta, iritsiz gero, ingurukoak ez nahastea. Egunen batean nire bizitza amaitzea erabakitzen badut, babestuko nauen lege bat nahi dut”. ●



MAX HAIBT, DAI

Uruken biki digitala

Uruk hiria Enmerkar errege sumertarrak fundatu zuen duela 6.500 urte inguru. Eta berriki, Max Haibt Alemaniako Arkeologia Institutuko arkeologoak hiriaren “biki digitala” sortu du, bideojoakoetan erabiltzen den teknologia baliatuz. Aztarnategiak hartzen dituen 40 kilometro koadroen hiru dimentsiotako erreregistro xehea egin du lantaldeak, sei

egunetan 32.000tik gora argazki eginez. Uruken erreplika digitala ez dago publiko zabalarri zuzendua, ikerlariei baizik; arkeologoei bertara joan gabe eta aztarnategiaren kontserbazioa arriskuan jarri gabe egin dezakete lana. Baina, gainera, erregistratutako zehatzak orain arte ezagutzen ez ziren eremuak ikertzeko aukera zabaltzen du. ●



Hitz gezidunak

Gaia: * Bizkaiko Ikastolen jaia 2024

OSO ONDO ALDI		* HERRIA ZIKINA, LOHIA		EMEEN UGATZ		URARI EUSTEKO HORMA SINDIKATUA (ALDREBES)		SALDU ADITZAREN ERROA LITROA		AGUR URAZA		ARROZ EGINIKO PLATER IZUTIA
				* JAIA A BIRRITAN								
TUBERKU- LUAK IJITOIA, BUHAMEA								HAITZULO, KOKA ANPEREA				
								ASTUN ABEREAK UXATZEKO				
HEMEN DAGOENA	BEGIRA ZENTZUGABE									PLURALA, LABURDURA AKATSAK DITUENA		
				* LELOA					HAURRA NAFARROAKO HERRIA			
BAKARRA POLIZIA NAZI												OPARO
									ERREGELA, NORMA KUPELA			
		10 ERROMATAR ERARA GABON KANTA			LOTAN PRESIO UNITATE	FRUITU, EMAITZA ESLOVAKIAKO UDALERRIA	AZKEN BOKALA	KILOA ERABAT, TXIT		GIGA ZIBURUKO RAP TALDEA		
NAFARROAKO MENDIA TRONBOAK ERATZEA							OLERKIA EZTAINUA					
GIPUZKOAKO UDALERRIA KOLOREZKO					ITSASOKO ENERGIA							
								ZAPATA				

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	7		3	5	8	1		9
	5			2	4	7		
	8						2	4
	6		7			8	5	
	1	3	9	8			4	
	4	8					9	7
	2	5	4		6	9		3
4	9			3		6	8	
		7	8		2			

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

- 1. Txalma sendoa.
- 2. Gaueko otordu.
- 3. Bigun, apurkor.
- 4. Aldaketa, aldatze.
- 5. Itxura, antza.

EBAZPENAK

- 1. BASTA
- 2. AFARI
- 3. SAMUR
- 4. TRUKE
- 5. AIREA

S	I	S	2	2	6	8	7	3	9
4	6	1	5	3	7	8	2	4	6
8	2	4	1	6	9	6	7	5	3
5	4	8	2	9	1	3	9	7	6
9	6	3	5	2	4	8	1	7	5
7	1	3	6	8	5	2	4	9	6
3	8	6	1	7	9	5	2	4	8
1	5	6	9	2	4	7	3	8	5
2	7	4	3	5	8	1	6	9	7

I	K	O	S	O	N	U	D	E	R	O	L	O	K
R	V	A	S	T	I	A	B	E	D	E			
V	A	O	P	I	S	O	B	O	R	O	R	L	
G	K	U	Z	L			O	N	U				
U	A	R					X		S	S			
R	A	U					L	V	B				
V	E	U						U	V	H			
L	P	X	U				O	S					
L	I	O	T		V		A	L	X	O	T	O	M
E	Z	I	E	L	K	A	V	L	V	P	A		
V	I	D	V	L	I	B	I	E	S	V	F		
P	A	V	S	D	T	G	B						



Arazoak eta hildakoak, zulora

✂ IÑIGO SATRUSTEGI 📺 EÑAUT CASTAGNET

Sareen bidez iragarri zuten antzerki misteriotsua Axut! konpainiako lagunek orain hilabete gutxi. Data gutxi batzuk, antzezle mordoa, ezagunak eta ez hain ezagunak, eta Izurako Latsaga jauregian izanen zela baino ez. Konturatu orduko data heldu eta hantxe ginen Nafarroa Behereko lurretan, hegoaldear gutxi batzuk eta inguruetakoa herritarrak espektatibak goi-goian.

Jauregiaren barrualdean, patio bat eta eserlekuak hondoan, estalpean. Hiru eraikinek inguratzen zuten oholza izango zena. Hirurak ere atrezzo baino gehiago, taularen parte. Jaustear den etxea eta zorrak. Hori da Beñatek duen bakarra. Ah, eta familia desegonkor bat ere bai: aita zorua, arreba zurrut-zalepoeta-komunista, eta arreba hautetsia. Azken hori familiarekin uda pasatzera itzulia da, deskonexio bila-edo. Bihoztza ere husturik du Beñatek, Maitexak alargun utzi baitzuen bi urte atzera. Eta, ordutik, arazoak bata bestearen atzetik.

Landa eremuaren hustutzeaz aritu dira antezelanean, herrian inor gutxi geratzen dela, eta hara heltzeko ere garraio arazoak dituztela. Gazte belaunaldiak lurrari lotutako lanerako grinik ezaz, eta hiritartuen ideia erromantiko faltsuez.

Halakoxeak dira hain justu bizilagunak, eta etxaldearekin negozioak egiteko bazkaria antolatu du haiekin. Baina otordua ez da nahi bezala aterako: egoak, interesak, ChatGPT-a eta bestek Beñaten plana zapuztuko dute.

Mataza korapilatsua josi dute, eta lokarriak askatzea ez da erraza izanen: Patxi eta Iban, Iban eta Aña, Aña eta Jean Battitt, Jean Battitt eta Beñat, Beñat eta bizilagunak, bizilagunak eta Edurne, Edurne eta Patxi... Eta horrela, denak, maitasun eta gorrotoaren artean.

Obran udak aurrera bezala, gaua ere heldu zaigu guri ere. Eta zirimiria alerata piztu du gudan. Zer egingen lukete zaparradarik balego? Aurrera egitea dela

LURREZ ESTALI

Axut! konpainia

NOIZ: Ekainaren 1ean.

NON: Latsaga Jauregian
(Izura, Nafarroa Beherea)

asmoa jakin dugu gero. Iraila da bat-batean, eta hiritarrak buelta egin dute, baina arazoek hor segitzen dute: aitona Petri gero eta okerrago, Edurne ihes eginda, Paxkalin bere egiaren bilaketan temati... Eta zorrak ere hor dirau.


Arazo batzuk ezin konpondukoak dira. Eta hil artean arazotan bizi dira batzuk, arazoa bera ere, berekin zuloratzeraino. Arazo bat baino gehiago planteatu dizkigute, eta konponbide errazik ez dute zenbaitzuk.

Ekimen gisa uler daiteke *Lurrez estali*. Edukiz eta formaz ere bai. Arriskutsua izan zitekeen, bira baten orde, jendea zuregana gerturatu behar izatea, baina ikusi besterik ez da egin behar arrakasta (toki guztiak hartuta, hamabost emanalditarako), gauzak ongi egin dituzten seinale. Kulturgintzan ere arazo ugari izanen dira, baina gure artisten borondateari eta lanari esker, halako gaualdi ederra pasa ahal izan dugu zenbaitek. ●



LIBURUA

Oraindik



PALESTINA

JOE SACCO

ITZULT.: JULEN GABIRIA

ASTIBERRI, 2023

BESTIAK LIBURUTEGIA

Oraindik desjabetzen dizkiete lurrrak, oraindik suntsitzen dizkiete etxeak, oraindik mozten dizkiete olibondoak”, idatzi zuen Joe Saccok 2001 urtean, baina berdin balio digu 2024an ere. Eta *Palestina* komikiak nonbaitera eramaten bazaitu, hain justu ere segida horretara da, etengabeko indarkeriaren bihotzera. Norbait kartzelan egon da hirugarrenez, norbaiten osaba torturatu egin dute, berrir, norbaitzuen aitonak desjabetu zituzten, norbaiten alaba hil egin dute herriarren aurka erabilitako gas negar eragilearen ondorioz.

Indarkeriazko segida horren momentu jakin batean kokatzen gaitu istorioak: 1991 eta 1992 urteen bitartean, lehenengo intifada indarra galtzen ari zen

garaian. 1993 eta 1995 urteen artean argitaratu ziren lehenengoz bederatzi istorioak, eta 2001 urtean Edward Said pentsalari palestinar-amerikarrak idatziriko sarrerarekin ikusi zuten argia denek. Saidi bere semeak gomendatu zizkion komikiak, eta Saidek guri. Bitartean, seigarren kapituluak, Saccok Said gomendatuko digu. Eta serendipia txiki horrek bi pertsona lotzen ditu, Palestina ulertzeko ezinbestekoak iruditzen zaizkigunak. Hori guztia Astiberri ekarri digu, Julen Gabiriak euskaratuta.

Bederatzi istorioetan Saccok sortutako izen bereko protagonistak bi hilabete egingo ditu Palestinan. Eta guk pertsonaia jarraituko dugunez, haren begiradak gurea baldintzatuko du beti. Baita

egiten dituen gogoeta, noizbehinka, gorrotagarriek ere. Halaber, ezinbestean, indarkeria haren bitartez iritsiko zaigu, beti segurtasun distantzia batera. Mendealdeko begirada horren iragazkiak tarteka deseroso sentiaraziko gaituen arren –desagertuko ez dena–, iragazkiak iragazki, indarkeria kolonialaren gordina izango da.

Egin *flash forward* eta 30 urte geroago indarkeriak ez du etenik izan. Are okerragoa, badirudi oraindik ez duela goia jo. Komikia klasiko bat da. Ez zen inoiz berandu iritsiko euskarara, baina egungo egoeran badirudi gu gabiltzala berandu. Hartu ditzagun kaleak, eta indarkeria kolonialaren segidaren aurrean, eutsi diezaigun protesten segidari. ●



MUSIKA

Ona dena eta pena



AIRU CON LO BUENO Y CON PENA

OSO POLITA, 2023

XALBA RAMIREZ

Pozten naiz Airu ez dudalako entzun garai ilun batean. Pentsa bikoteki-dearekin apurtu berri edo gertukoren bat galduta hartzen duzula disko hori. Alejandra Pizarnik bera berpizteko gai nintzateke. Tristuraren inguruan, eta tristuratik egindako pieza, itxuraz, minimalista da *Con lo bueno y con pena*. Eta bidaia bat da: doluaren bidaia.

Bilbotik datoz Airukoak, eta, onartu behar dut, apur bat ezinikusia eragiten didan bertako dardara moderno eta *arty*-arekin lotzen nuela taldea. Bigarren entzunaldi zintzoak, ordea, geruza ugariako dream-pop goibel eta nostalgiko zainduaz gozatzeko aukera eman dit. Triste eta pozik egoteko istorio horietako bat da.

Cuenta, cuenta, cuenta-n bateria eta baxuak isildu, eta letrak hartzen du pi-

sua. Bikote harremanetan (batez ere) ematen diren komunikazio arazo erraldioen aurrean korapiloak nola askatu proposatzen du: "Ikusten duzu nola ateratzen zaizun esateko zerbait?".

Kontua horixe bera baita: nola sendatzen dira zauriak? Harrigarria da pop kulturaren zein pisu duten kantuek dolu prozesuetan. Pertsonaie iltzatuta gertatzen dira melodiak, eta ezin ditugu berpiztu gabe utzi.

Sendatu arren, "orain soilik geratu naiz onarekin, eta penarekin".

Gaztelania hutsean kantatu du oraingoan taldeak -lehen ingelesa zuten hizkuntza nagusi-, eta gaztelaniaz den arren, kanten tituluak halako esaldi bat osatzen dute: "Zu bizkarra emanda ikustea itxialdi bat da. Oinak kokatzen ditut,

zure onerako da. Eta honaino: kontatu, kontatu, kontatu haraindian, zer dakizu nitaz? Zenbat denbora iraungo duela diozu? Beste aukerarik ez bazenu bezala begiratzen saiatzen naiz: nire bizkarrean dantzatu".

Nahiago nuke gure gizarteak doluetarako antsiolitiko, psikoanalista eta pop taldeen beharrik izango ez balu. Nahiago nuke erritual komunitarioak indartuko balira, eta eguneroko bizitzaren gainean kontrola izango bage-nu; aurre eginez kolektiboki gure arazo pertsonalei eta heteroarauak, sistema arrazistak eta soldatapeko lanak eragiten dituen trauma guztiei. Bitartean, *tontipop* pixka batek dolua arintzen lagundu dezake. Eta aizu, hori ez da batere gutxi. ●

Tabernari lehorren eta kuadrillen alde (edo ez guztiz kontra behintzat)

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Aber, dakazue...” esan zuen, eta segidan eguneko plateren zerrenda kazkabarra bezala erori zitzaigun gainera, hain azkar, ezen nik behintzat ez bainuen denborarik eduki aukeran zeuden jaki guztiak mentalki prozesatzeko. Tabernariaren aurpegiari erreparatuta, asuntua ez zegoen zerrenda osoa berriz errepikatu zezala eskatzeko, horretaz berehala jabetu nintzen. Beraz, kasu horietan egin ohi dudana: kaskoan geratu zitzaizkidan bizpahiru plateretatik bat aukeratu, aliritzira. Eta azkar, egokiera horretan inkompetente baten pare geratzea baita azkeneko gauza.

“Joino, hau sekotik, e?”, esan zuen lagun batek, ostalaria bere motots estuki lotuarekin gugandik urruntzen hasi zenean. Azken enpasterainoko irribarrearekin esan, orde. Gustatzen baitzaizkio horrelako tabernariak lagunari: hitz justukoak, gauzak di-da egin zaleak, itxurakerian askorik gatatzen ez dutenak. Galbidean dagoen espeziea, hemengo bazkaltegi gehienetan Amerikako Ostatu

Batuen manera *polite* horiek –“bai noski”, “oraintxe bertan”, “nola ez ba”, “bezeraoak beti arrazoi”– nagusi direnetik. Fundamentuzko euskal tabernari lehor baten arteak, oraintxe bertan, ez dauka batere prentsa onik.

Gauza bera gertatzen da kuadrillekin ere. Azkenaldian modan dagoen pentsamendu-ildoari jarraituz gero, para-je hauetan daukagun instituzio sozial absurdoenetako bat dira. Utikan kuadrillak: nola da posible haurtzaroko inkontzientzian sortutako talde horiei bizi osoan eustea, bidean pasatzen ditugun turbulentzia guztien gainetik, puntu batetik aurrera partaideek amankomunean ia ezer eduki ez arren? Nola da posible kidetasun hain hermetiko horrek irautea, jende berria gonbidatzeari dagokionez hain uzkurra baldin bada, eta bizitzako beste alor guztietan zabalasmotan baldin bagabiltza?

Problema, nik uste, kuadrillak ulertzeko moduan dago. Eta behingoagatik Wikipediaren kontra –“lagun-talde” sarrerara bideratu bainau–, niri ez zait

iruditzen adiskidetasunean oinarritutako taldeak direnik. Edo ez horretan bakarrik, behintzat. Ea nola esplikatzin dudana: lagunak baditugu kuadrillan eta kuadrillatik kanpo. Norbaiten lagun izateak eskatzen du bestearenganako afektu pertsonalen bat; eta maiz konexio hori faltatzen zaigu kuadrillako zenbait jenderekin. Zertarako mantendu harreman hori orduan?

Beharbada pixkatxo bat harago dagoen beste hitz batek ematen du argi pixka bat kontu honetan: elkartasuna. Izan ere, elkartasunaren grazia da zer egiten dugun gurekin erlazio zuzenik izan gabe, beste arrazoi batzuegatik bidean gurutzatu zaizkigunekin. Ea inporta zaizkigun beste horiek, edo zer. Laguntasuna pertsonatik pertsonara mamitzen bada, elkartasunak dimentsio soziala dauka. Eta kuadrilla, agian, bi solairu horien arteko eskailera da: maila desberdinak dituzten konexio pertsonal-sozialekin funtzionatzen ikasteko harreman-sare bat.

Askotan oso frustragarria, noski. Eta bai, itxi samarra. Eta gainera, partekatutako helburu zehatzik gabekoa. Utikan, utikan, utikan kuadrillak, jarraituko du esaten askok aurrekoa irakurri ondoren. Ulertzen dut, noski. Sarbide errazagoko taldeak badira –sektak, adibidez–, baita helburu amankomunen inguruan antolatzen direnak ere –demagun, lobbyak–. Dena den, igual badugu garaia ulertzen hasteko gure idiosinkrasian hain errotuta dauden jarrerak eta antolatzeko erek badutela izateko arrazoiaren bat. Eta horretaz eztabaidatu dezakegu, kuadrillakoak izan gabe ere –lobbysekten partaideekin zailagoa da–. Aukeran, hori bai, izan dadila tabernari lehor samar batek gobernatzen duen barra baten bueltan. ●



EKAINAK 16
GIPUZKOAKO 35.
ESKOLA TXIKIEN

FESTA



ADUNA 2024
ESKOLA
TXIKIAK
BIZIRIK

10:30-11:00 HARRERA EKITALDIA

11:00-13:00 ZIRKUOLA

11:30-12:30 SAGARRAREN IBILBIDEA

TXIKI ZUMBA

11:00-13:00 PUZGARRIAK

ETA UR JOLASAK

14:30-17:30 TXIKI TXOKO

EGURREZKO JOLASAK

ESKULANAK/TAILERRAK

SAHARAR JAIMA

MAKILLAJEA

ILE APAINDEGIA

ARGAZKI GUNEA

POTTOKAK

PUNTERIA JOLASAK

13:00-14:00 SAGAR ETA LEKUKO ALDAKETA EKITALDIA

14:00 BAZKARIA

BINGO MUSIKATUA

17:30 BUKAERAKO EKITALDIA PORROTX ETA MARIMOTOTS

MAGOAK ETA MUSIKA EGUNEAN
ZEHAR

SAGARRAREN BIDEA

Goizeko 11:30etan egongo
da bisita gidatua egiteko
aukera. Bestela, egun
osoan zehar zabalik.



ANTOLATZAILEAK



BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK





URNIETA

Mendia, natura eta lasaitasuna

Herriko ingurune naturalak eta berdeguneek plan mordoa eskaintzen dituzte aire zabalean:

Adarra (PR-GI-203) eta **Onddi (SL-GI-43)** mendietako ibilbideak,
Muniskuegainako multzo megalitikoak, Santsonarri, elurzuloak eta karobiak.

Donostiatik 12km eskasera kokatua dago eta ostatu-eskaintza zabala du.



Informazio +